



## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARDENTASUNAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Azken urteotan, gure artean ekimen bat baino gehiago egon da Euskal Autonomia Erkidegoan legez araututa uzteko, denen argigarri eta ondo, zer den gardentasuna; izan, giltzarria baita; politikagintzaren diseinu aurreratu ororen gakoa gure ustez, eta ez, soilik, gobernantza berriari eta gobernu onari buruzko doktrina-ildoen elementu nagusia, hori ere bai, zalantzarik gabe. Bada, lege hau ekimen horien azken burua da.

Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte ez da garatu lege bat gobernu irekiaren kultura osorik bultzatuko duenik, bultzatu ere nazioarteko estandarrei jarraituz, gardentasunean oinarriturik, integritatean, kontuak emateko obligazioan eta herritarren partaidetzan, denak ere printzipioak baitira. Hala ere, bada hamarkada bat Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa bera eta toki- eta foru-administrazio guztiak gobernu irekia bultzatzeko politikak, arauak, planak eta tresnak garatzen hasi direnetik, zein bere erritmoan eta mailan. Erakundearteko lankidetzaren adibidea da, 2018an, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta hiru hiriburuetako udalek erabaki izana hautagai-zerrenda bateratu bat aurkeztea Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzan, OGPko tokiko kide gisa parte hartzeko. Euskadi, horrela, Batasuneko kide diren munduko 20 eskualdeetako bat bihurtu zen. Harrezkero, Erakundearteko 2018-2020 Ekintza Plana garatu da, eta, gaur egun, 2021-2024 Ekintza Planean murgilduta gaude.

Tesiak dioenez -eta gu ados gaude-, arduradun politikoek erraz onartzen baldin badute inoren begipean egotea, eta herritarrek, erakundeen gardentasun benetakoari esker, ondo baldin badakite nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak, zer irizpide maneatzen diren denon eta bakoitzaren ongizatean zeresana duten politika publikoak eta gizarte-helburuak erdiesteko, hots, gardentasuna benetan gardena bada, orduan, errazagoa da herritarrek ere gai publikoetan hobeto eta oparago parte hartzea; azken batean, orduan etor daiteke demokraziaren eraberritze desiratua, orduan izango ditugu, behingoagatik, ondorio positiboak eraginkortasunean eta efizientzian, baita herrialdearen hazkunde ekonomikoan bertan ere.

Geriza berezia eta aldi berean noranahikoa du gardentasunak, eta, hortxe kokaturik, legeak badu orobat nolabaiteko aniztasuna helburuetan eta xedeetan. Labur beharrez, bi ildo nagusitan banatuko ditugu:

Alde batetik, baditugu kudeaketa-tresna nagusi batzuk, eta haien legedia zehatzaren garapena ere erabil dezakegu gardentasuna sustatzeko. Lehen jardun-ildo horretan, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen atzetik joango gara, alegia, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen atzetik. Hona iritsita, aipa ditzagun bi gauza, giltzarri baitira: jarduera publiko osoaren publizitate aktiboa, eta herritarrek informazio publikoa irispidean izateko duten eskubidea. Bada, bi elementu horiek arautuz, asmoa da ekintza-bide orekatuago bat lortzea EAEko sektore publikorako, ea lortzen dugun urrunago iristea herritarren partaidetzan, hartara partaidetza hori oinarritzko esparru bilaka dezagun interes publikoko erabakiak diseinatzeko eta hartzeko.

Urtero-urtero gardentasunaren balantze-txosten bat aurkeztu beharra dago Gobernu Kontseiluan, eta argi dago, txosten horiek eskutan hartuta, oinarrizko legeria (GIBGOL) indarrean jarri zenetik (2015) euskal herritarrek EAeko sektore publikoari arian-arian geroz eta gehiagotan eskatzen diotela informazio publikoa eskuratzeko bidea.

Txosten horiek dakarten informazioa aztertzen baldin badugu, argiago ikusiko dugu zertan nola hobetu; adibidez, eskubide horren berri gehiago zabalduz, erantzuteko epeak laburtuz, administrazio-isiltasuna urriaraziz, herritarrek gehien eskatzen duten informazioa gure kasa argitaratuz, eta abar. Horretarako, baina, hobe genuke legeria autonomikoa eduki eskubide hori taxutzeko.

Azpimarratu behar da 2016az geroztik Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea dugula –Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortua–, baina batzorde horren eskumenak aurkezten diren erreklamazioak ebazteko baino ez da. Hala da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko GIBGOLen 24. artikuluan araututako aurkaratze-araubidea aplikatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideetako eta toki-erakundeetako administrazio publikoek eta euskal sektore publikoko gainerako entitateek berariaz edo ustez emandako ukapenei dagokienez. Beraz, beharrezkoa ere bada informazio publikoa irispidean izateko eskubidea bermatzen duen organo bat eratzea, oinarrizko legeetan xedatutakoarekin bat etorritz; baina Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak gaur egun dauzkan baino eginkizun gehiago izango ditu.

Lege-mailako arau batek aukera emango luke, halaber, antolamendu- eta kudeaketa-eredu bat finkatzeko, gero, harekin bidetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan gardentasuna sustatzeko (gaur egun, Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko erabakiaren bidez dago ezarrita); eta, era berean, publizitate aktiboa bermatzeko oinarrizko tresnak sendotuko lituzke, publikazio-betebeharrak estutuz, zabalkunderako plataforma eta kanal egokiak atonduz, informazioa berrerabiltzeko baldintzak argi utziz, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko baldintzak ere lotuz.

Legea oso tresna garrantzitsua da kultura berri bat sustatzeko eta euskal gizarte osoaren eskura plataforma berri bat jartzeko, berme berriak lotuz eta eginbeharrak eta betebeharrak zedarritzeko erantzukizun-araubide bat ezarriz. Baina garrantzitsuena kultura berri hori sortzen laguntzea izango da, behar-beharrezkoa baita herritarrek ohitura har dezaten gai publikoetan parte hartzeko, erantzukizunak onartuz.

Bestalde, lege honetan aukera polita dugu, sortu beharreko tresnak sortu eta, haien bidez, gardentasunaren plaza orain baino zabalago uzteko, hau da, gure eremuan eta euskal sektore publiko osoan sistema berri bat atontzeko, modua izan dezagun –azkenik bai– arau-hausteen berri ematen duten gizon-emakumeei babesa eskaintzeko eta ustelkeria borrokatzeko.

Bigarren garapen-ildo horri heltzen diogunean, iritsiak izango gara Europako zuzenbidera (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa) eta hura gurera ekartzeko legebideetara, hots, otsailaren 20ko 2/2023 Legea, hura baitaukagu arau-hausteen berriemaileei babesa emateko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko. Bide horretan guztian, herritarren lankidetzatza izango da oinarria, funtsezkoa baita



zuzenbideak bere lana burutuko badu. Alde horretatik, esan beharra dago, beste behin ere, kontua ez dela, soilik, nork bere obligazioak zuzen-zuzen betetzea, baizik eta denon lana eta ardura dela erakunde publiko eta pribatuak ondo funtzionatzea.

Europako zuzenbidea aplikatzen dugu. Bada, bi helburu argi ditu, alegia, informazioa ematen duena edo salaketa egiten duena babestea (herrialde batzuetan "alerta-argiak" edo deitzen zaie), eta gutxieneko arau batzuk ezartzea informazio-kanaletarako, 2/2023 Legeak dakarren sistemak informazio-kanal batzuk zabaltzen baititu, horretarako. Azken batean, barrutik barrurako informazio-kanalak izango ditugu enpresetan eta entitate publikoetan, aukeran hobe baina dena delako antolakundeak berak jakitea barruko jardunbide okerren berri, bai okerkeria zuzentzeko, bai kalteak konpontzeko. Baina "barruko" deritzogun dinamika horretaz gainera –2023 honetan bertan ari da taxutzen–, "kanpoko" izeneko beste informazio-kanal batzuen nondik norakoa ere zehaztu da, herritarrei aginte publiko espezializatu batekiko komunikazio-bide bat eskaintzearen –eta ez da gutxi–; hartara konfiantza handiagoa izan dezaten, eta beldur gutxiago inork nolazpait zigortu-edo egingo ote dituen ordainetan, barrutik barrurako bideetan beldur hori hortxe izaten baita ezbairik gabe. Laburbilduz, lege honen bidez, Euskadin sistema hori oso-osorik ezartzea lortu nahi da; eta horretarako, organismo berri bat izango dugu, konektatzen diren alderdi guztien aniztasuna aintzat hartu eta bilduko dituen: *Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza*.

Lege berria bat dator Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. apartatuetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundearen antolamenduari, araubideari eta jarduerari buruzkoekin, bai zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauak buruzkoekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoari buruzkoekin ere, betiere Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian.

I. titulua legeen ohiko aurkezpena da. Arau hau, zalantzarik gabe, "programatiko" deitzen diren horietakoa da. Horregatik, badira zerrenda orokor batzuk: helburu, printzipio eta eskubide-betebeharrak zehazteko; bada orobat legearen aplikazio-eremua zedarrizteko lan praktikoago bat, eta, hor, behar bezala bereizita uzten dira bai gardentasunari buruzko arau zehatzen bi alderdi handiak bai haiek nola hezuramitzen diren publizitate aktiboan eta informazio publikora iristeko eskubidean; eta, badugu bigarren alderdi bat ere, hots, informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko Europako sistema ezartzeari buruzkoa.

Hitz egin dezagun, orain, gardentasun-tresnei berei buruz, arlo horretan nabari baita, bereziki garbi, nork bere burua antolatzeko duen gaitasuna. Bada, lege honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikora mugatzen da, halako moldez ezen ondorioztatzen baita euskal maila instituzional bakoitzak bere antolabidea duela, dela tokiko mailak, bere legearekin, dela foru-mailak, gardentasunari buruzko bere foru-arauekin. Hortaz, Administrazio autonomikoan bakarrik aplikatzekoa da, baina argitu dezagun ezen publizitate aktiboa egin beharrak ez dituela erakunde publikoak bakarrik lotzen, aitzitik, subjektu eta erakunde pribatuak ere kateatzen dituela, baldin eta, betiere, jarduera publikoa haien bidez gauzatzen bada, dela haien zuzenbidearen dirulaguntza edo laguntza publikoak, dela administrazio-ahalak egikaritzen dituztelako, edo dela zerbitzu publikoak ematen dituztelako, eta berdin dio tartean legeko gaikuntza berezirik edo dagokion kontratu-harremanik ote dagoen.



Har dezagun, orain, legeak dakarren bigarren bloke handia: informatzaileak babesteko sistema europarra gurera ekarri beharra. Bada, lege honen iritziz, Estatuko legeak gaitzen duen aukera hortxe egon arren, beharrezkoa da euskal erakundeak oro har sistema bakarrera atxikitzea, Euskal Autonomia Erkidego osorako bakar batera, eta horrek esan nahi du aplikazio-eremuak, gai honetan, euskal sektore publiko osoa hartu behar duela.

II. tituluak oinarrizko legediaren eskema dauka, kasu honetan gardentasunari buruz ari garelarik, hau da, Gardentasunari buruzko legearen funtsezko edukia hartu (abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), eta autonomia-erkidegoaren eremuan garatzen du. Lau kapitulutan banatzen da. Publizitate aktiboari buruzko kapituluan, herritarrei modu proaktiboan helarazi nahi zaien informazio sorta zabalaz gain, aipagarria da datuen irekiera eta berrerabilera (open data). Euskal Autonomia Erkidegoa, aurreko legealdietan hasitako lanen eskutik, aitzindaria da gai horretan, nahiz eta oraindik badugun ibili beharreko bide bat aurretik, erreferentziakoak diren herrialdeen eruedetara iristeko (Erresuma Batua, Europa Iparraldeko herrialdeak eta Estatu Batuak, besteak beste). Bigarren kapitulua dator ondoren, informazio publikorako irispideari buruzkoa. Publizitate aktiboaren elementu osagarria da, eta, alde horretatik, legearen gardentasun-eskemarena ere bai, herritarrek aukera izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei aktiboki argitaratzen ez den informazioa ere eskatzeko. Hirugarrena dator gero, aurreko kapituluei oso lotuta. Barruko plangintza eta koordinazioa aipatzen ditu labur-labur, bidea izan dezagun EAEn jardun publikoa kohesionatzeko. Eta, azkenik, beste kapitulu bat, konplexua eta berrizalea, zehapen-araubideari buruz. Batez ere publizitate aktiboa eta informazio publikorako irispidea ditu mintzagai, haiekiko obligazioen betebeharra lotzeko bereziki.

III. tituluak, plangintza publikoari buruzkoa, lehendakariak definitutako “gobernu-programa” zer den definituz hasten da. Dagokion artikuluan jasota dagoen bezala, helburua hauxe du, eta ez besterik: Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzea eta gizarteratzea, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzea. Arau-zati hori funtsezkoa da, datu- eta konpromiso-multzo sintetiko oso bat baitakar Administrazioaren eguneroko jardunean eransteko, denak ere “gizarteari kontuak eman beharra” esamolde adierazgarriaren itzalpean batuta.

IV. tituluak, bestalde, gobernantza onaren oinarrizko triangela osatzen du, plangintzarekin eta ebaluazioarekin batera; herritarren parte-hartzea eta partaidetza-prozesuak jorratzen ditu, ikuspegi malgu eta moldagarria erabiliz. Alde horretatik, gai orokorrak eta parte hartzeko prozeduren eta tresnen bermeak eta eskubide komunak ezartzen ditu. Izan ere, egun dauden eta etorkizunean sor litezkeen parte hartzeko moduen kopurua, aniztasuna eta aberastasuna kontuan izanik, parte hartzeko edozein prozedurak bete behar dituen baldintzak eta oinarrizko bermeak ezartzea izan da aukera. Legeak, horrela, herritarren parte-hartzeari dagozkion eskubide zehatzak lantzen ditu, parte hartzeko bide edo tresna zehatzak ezarriz, eta aurreko bermeek haietan aplikatzeko modukoak izan behar dute. Apartatu honetan, bestetik, neurri aitzindari gisa, aipatu behar da herritarrei erregelamendu-ekimenak sustatzeko eskubidea onartzen zaiela. Eskema, berez, gaur egun herritarren ekimen legegilerako aurreikusitakoa da, eta bermeak ere hangoak baliatzen ditu.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa eta interes-taldearen erregistroa sortzen dira, bi helburu hauekin: batetik,



herritarren parte-hartzea sustatu nahi du, herritarrentzako edo talde interesdunentzako lehenetasunezko bideak edo alerta goiztiarreko eskubideak ezarriz; eta, bestetik, aurrekoaren osagarri gisa, eta Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak nahitaezko gardentasun-erregistro bat sortzeko hartutako 2021eko maiatzaren 20ko erakundearteko erabakiaren eta antzeko beste organismo batzuen lorratzari jarraituz, herritarrei informazio zuzena ematen die, lege honetan ezarritako parte-hartze eskubideen bidez erabakitze-prozesuetan zilegitasunez eragin nahi duten presio-taldeei edo "lobbyei" eta beste interes-talde batzuei buruz.

V. titulua Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sorrerari eta diziplinari buruzkoa da. Badakartza haren funtzioak eta paratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren zaindari modura; baina, haratago ere badoa, eta beste aukera baten gisara gailentzen da, hots, Euskadin, azken agintaritza publiko gorena izango da informatzaileak edo alerta-argiak hartzeko kanpo-bidean, hala dela esaten baitu otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, zeina arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa baita. Legearen ekarpen nagusia antolaketari dagokio bete-betean, abiapuntua izanik Estatuko legediak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dion gaikuntza (zehatzago: Estatuko lege horren 24. artikulua eta laugarren xedapen gehigarriak emandakoa).

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza erronka eta aukera da, eta garrantzitsua. Ezin dugu ahaztu, entitatearen hauspo-indarrak nabarmen geratu behar du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren taupadak aditu behar zaizkio, harekiko harremanetan egongo da, baina askea izango da erabat; askea, euskal erakunde publikoen maila guztiguztietan jarduteko, baina baita sektore pribatuan bertan ere, baldin eta jakinarazten zaizkigun arau-haustea eta irregulartasunak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatu badira. Urrunera begira jarri behar gara beraz, eta lan-harremanak ahaztu gabe gainera, harreman horietan Euskadik baitauka laneko legedia exekutatzeko eskumena.

## **I. TITULUA.– Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua. Xedea**

Hau da lege honen xedea:

- a) Jarduera publikoak gardenak eta publikoak izan daitezela arautu eta bermatzea, herritarrek informazio publikoa irispidean izateko duten eskubidearekin batera.
- b) Herritarren parte-hartzea bultzatzeko oinarrizko esparrua eratzea, interes publikoko erabakiak diseinatu eta hartzeko.
- c) Lege honetan xedatutako betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatiko erantzukizunaren eta bermeen araubidea ezartzea.
- d) Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legean informatzaileentzat aurreikusi



den babesa esleitzea lege honen V. tituluaren adierazitako Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independenteari.

## **2. artikulua. Helburuak**

Lege honek helburu hauek lortu nahi ditu:

- a) Herritarrei aditzera ematea zein diren administrazio publikoen jardueren plangintza eta konpromiso estrategikoak, eta, horrela, publizitate aktiboaren printzipioa sendotzea.
- b) Lege honen arabera garrantzitsuak diren datu guztiak formatu irekian argitara daitezen sustatzea.
- c) Sustatzea herritarrek irispidean izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren parte diren antolakundeen esku dagoen informazio publikoa.
- d) Gai publikoetan erantzunkidetasunez parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzen laguntzea.
- e) Informatzaileen babes egokia bermatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua eta Arau-hausteen informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeko, horrela erantzuten baitzaio informatzaileak babesteko beharrari, baldin eta interes orokorra ukitzen duten edo interes horri kalte eragiten dioten ordenamendu juridikoko arau-hausteei buruz informatuz gero; horretarako, kanpoko informazio-kanal bat antolatzen duen agintaritza independente bat sortuta.

## **3. artikulua. Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipio orokorrak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarrei zerbitzu ematera bideratuko du bere jarduna.
2. Funtzionamenduaren printzipio gidari hori betetzeko, administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaien araudia aplikatu behar zaio, bai eta, horretaz gain, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean herritarrekiko interakziorako eta funtzionamendurako ezarri diren printzipioak ere.

## **4. artikulua. Definizioak**

- a) Lege honetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, gardentasuna jarduketa-printzipio bat da; eta haren bidez, lege honetan ondorio horretarako adierazi diren botere publikoei eta subjektuei ezartzen zaizkie betebeharrak hauek: daukaten informazio publiko garrantzitsuena aktiboki argitaratzea, eta herritarrek informazio horretarako irispidea izan dezatela ziurtatzea, lege honetan eta aplikatu beharreko indarreko legeetan ezarritako mugen barruan.
- b) Informazio publikotzat joko da botere publikoek beren eginkizunetan prestatu edo jaso eta eduki daukaten informazioak, edukiak edo dokumentuak, edozein formatu, euskarri eta



adierazpidetakoak. Horretaz gain, lege honetan adierazita dauden eta zerbitzu publikoak ematen dituzten entitateek sortutako informazioa ere hartuko da informazio publikotzat, edo eskumen publikoak edo eskumen administratiboak egikaritzen dituzten entitateek sortutakoa, edo jardun publikoan edo jardun publikoa gauzatzeko sortu edo lortu eta jabetzan duten informazioa.

c) Edonola ere, gardentasun-printzipioa lehenetsunez aplikatuko da arau orokor gisa. Edozein salbuespen egiteko edo edozein muga ezartzeko, lege-mailako xedapen bat beharko da, edo oinarrizko eskubideren bat babesteko izan beharko da; hala ere, haren interpretazioa murriztailea izango da, eta kasuan kasuko informazioa zabaltzearen edo irispidean izatearen aldekoena.

d) Lege honetan ezartzen diren gardentasun-betebeharrak gutxienekoak eta orokorrak dira, eta, beraz, ulertu beharko dira kasu zehatz bakoitzean aplikatu beharreko legeek zehatzago eta espezifikago xedatutakoak eragotzi gabe.

## **5. artikulua. Gardentasun-konpromiso orokorrak**

1.– Gardentasun-printzipioa betetzeko, aldi-aldi informazio eguneratua argitaratu behar dute horretara behartuta dauden subjektuek, baldin eta informazio horren berri izatea garrantzitsua bada jardueraren gardentasuna bermatzeko. Batik bat, jardun publikoan duten funtzionamenduari, kontrolari eta herritarren lankidetzari buruzko informazioa argitaratu behar dute; hartara, herritarrek jakin ahal izango dute zer erabaki hartu diren, nola hartu diren, zerbitzuak nola antolatzen diren eta zein diren jardunen erantzuleak. Izan ere, horrela, funts publikoen erabilera kontrol publikoari eta kontu-emateari loturik egon ahal izango da.

2. Aurreko apartatuan aipatutako informazioak hizkera inklusibo eta ez-sexista izango du; edonola ere, sexuaren arabera banatuko da, eta irispidean izango da toki hauetan behintzat: lege honetan ezarritako Gobernu Irekiaren plataforman, horretara behartuta dauden entitate eta subjektuen egoitza elektronikoetan edo webguneetan, eta horretarako sortzen diren gardentasun-atarietan. Nolanahi ere, behar diren mekanismoak ezarriko dira informazio hori desgaitasunen bat duten, informatika-jakintzarik ez duten edo Internetera konektatzeko aukerarik ez duten pertsonengana irits dadin.

3. Gardentasunaren kultura sustatuko da herritarren artean eta gizarte-sektoreen artean, informaziorako irispidea izateko eskubidea baliatzen laguntzeko, kontuak eman daitezen sustatzeko, eta informazioa berrerabilitzearen bidez balio erantsia sortzeko, bai eta entitate pribatuek gardentasun-printzipioa beren gain har dezaten laguntzeko ere.

## **6. artikulua. Herritarrek gardentasunaren arloan dituzten eskubideak eta betebeharrak**

1. Lege honetan aipatuta daudela-eta informazioa ematera behartuta dauden subjektuekiko harremanetan, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aitortutako eskubideak ez ezik eskubide hauek ere aitortzen zaizkie herritarrei:



a) Lege honek esandako moduan aktiboki argitaratu den informazio publikoaren berri izateko eta informazio hori erabiltzeko eskubidea.

b) Informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoetako edozeinen esku dagoen informazio publikoa eskatzeko eta irispidea izateko eskubidea, horretarako interes legitimorik eduki behar izan gabe eta hargatik eragotzi gabe Estatuko oinarrizko araudian eta lege honetan ezarritako mugak. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak barnean hartzen du informazioa prestatzeko edo gordetzeko edozein forma edo euskarri.

c) Lortutako informazioa erabiltzeko eskubidea, horretarako aurretiko baimena izan beharrik gabe eta lege honek edo beste batzuek jarritakoak beste mugarik ez dela.

2. Lege hau aplikatuta informazio publikoaren berri izan, irispidean izan edo erabiltzen duten herritarrek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Beren eskubidea fede onaren printzipioa eta eskubide-abusua galarazteko printzipioa betez erabiltzea, eta, bereziki, zerbitzu publikoen funtzionamendu normalari kalterik egin gabe.

b) Lortutako informazioa berrerabiltzeko dauden indarreko legeetan xedatutako betebeharrak betetzea.

c) Lege honetan xedatutako gainerako betebeharrak betetzea.

## **7. artikulua. Datu pertsonalak babestea**

1. Izaera eta helburua kontuan hartuta, informazio publikoa prestatzeko, eta informazio hori eman edo argitaratu aurretik, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Datuak babesteko printzipioak bete behar dira, datu pertsonalen minimizazioari eta gordetzeko epea mugatzeari buruzkoak bereziki.

b) Neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartu behar dira, bermatzeko eta egiaztatu ahal izateko tratamendua bat datorrela datuak babesteko araudiarekin, lege hau betetzeari dagokionez.

c) Informazio publikoa prestatzean, datuak babesteko printzipioak bete behar dira, lehenespenez eta informazioaren diseinutik bertatik hasita.

d) Argitaratzen diren datu edo informazioetatik pertsonak identifikatzen dituzten datuak disoziatu badira, analisiak egin behar dira egiaztatzeko disoziazio-prozesua leheneratzea ezinezkoa dela edo, teknikaren egoera kontuan hartuta, neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direla.

e) Datu pertsonalen babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar da eta, hala badagokio, txosten bat eskatu behar zaio dagokion entitateko datuak babesteko ordezkariari, baldin eta datuen tratamendua datu-kategoria bereziei, adingabeei, genero-indarkeriaren biktimei, gizarte-bazterketako egoeran edo zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen eta kasu parekagarri buruzkoa bada, bai eta segurtasun pertsonalerako arriskuak dakartzaten kasuetan ere.



f) Administrazio-egintzen iragarkien jakinarazpenetan eta argitalpenetan interesdunak identifikatzeko moduari dagokionez, datu pertsonalak babesteko araudian jasotako irizpideak aplikatu behar dira.

2. Gardentasun-atarian, datuen babesari buruzko informazioa ageriko apartatu batean eman behar da, eta han, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: atari horretako datuak babesteko politika; datuak babesteko ordezkararen eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren harremanetarako datuak, eta datuen babesari buruzko araudiak dakartzan eskubideak baliatzeko prozedurak, bereziki, datuak ezerezteko eskubidea edo ahaztua izateko eskubidea.

3. Gardentasun-atarian argitaratutako edo informazio publikoa irispidean izateko eskubidearen ondoriozko eskabideei erantzuteko emandako datuak eta informazioa biltzen dituzten pertsonak edo entitateak erantzuleak izango dira bai egiten duten erabileran edo tratamenduan, bai datuen babesaren gaineko arau-hausteetan.

4. Datu pertsonalen tratamenduak datuok Interneten argitaratzea badakar, aldez aurretik tratamenduaren arduradunak txosten arrazoitu bat egin behar du; txosten horretan utzi behar da jasota zer haztaper egin den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarritako printzipioen arabera –2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen baitu (Datuak babesteko erregelamendu orokorra)–. Txosten hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta horrelako haztaper-tratamenduetarako pribatutasun-politika espezifiko bat onartu bada eta haztaper horretarako irispidea badago entitatearen egoitza elektronikoan.

5. Datu pertsonalak dauzkan informazio publikoa eskatzen bada, zein araubide aplikatu aurreikusita dago gardentasunaren eta informazio publikorako irispidearen arloan aplikatu behar den araudian eta datuak babesteko araudi orokorrean.

Informazio-eskaera jaso duen organoak edo entitateak informazioa ematea zilegi den ala ez ikusteko arrazoizko zalantzak badauzka datuak babesteko eskubidean eragina izan dezakeelako, eta egoki irizten badio, horri buruzko txostena eska diezaioke datuak babesteko ordezkarari, baldin eta entitateak halakorik badauka aplikatu beharreko arauen arabera.

6. Lege hau betetzeko egiten diren tratamendu eta argitalpenei aplikatuko zaie artikuluko honetan xedatutakoa.

## **8. artikulua. Gardentasun-arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala**

1. Lege honek gardentasunaren arloan ematen dituen xedapenak eta lege honen V. tituluaren Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari esleitzen zaizkion arlo horretako eginkizunak honako hauei aplikatu behar zaizkie:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten organismoak (Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen II. tituluko I. kapituluaren adierazita).



b) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta haiei atxikitako administrazio instituzional eta instrumentalei, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

c) Lan Harremanen Kontseiluari.

g) Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari.

e) Euskal Herriko Unibertsitateari.

2. Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan adierazita dauden euskal sektore publikoko subjektuei lehenengo apartatuko xedapenak aplikatu beharko zaizkie, lege honetan ezarritako baldintzetan eta dagokien araudi instituzionalaren arabera.

3. Halaber, lege horren I. tituluan adierazita dauden gardentasunaren arloko helburuak, printzipioak eta konpromiso orokorrak honako hauei aplikatuko zaizkie, bakoitzaren antolamenduko barne-funtzionamendua arautzen duten xedapenekin bat etorritz:

a) Eusko Legebiltzarrari.

b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

c) Arartekoari.

4. Aurreko apartatuetako subjektuek ez ezik, honako hauek ere izango dute lege honetan ezarritako publizitate aktiboaren betebeharra:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten alderdi politikoek, antolakunde sindikalek eta enpresaburuaren antolakundeek.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten entitate pribatuek, baldin eta aurrekontu-ekitaldian 100.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte funts publikoetatik, edo urteko diru-sarreraren % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza horietakoak badira eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

c) Itunpeko ikastetxe eta osasun-zentroek, bai eta gizarte-zerbitzuen arloko itunpeko zentroek ere.

d) Herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroan inskribatutako pertsonak eta entitateak, arau partikularretan adierazitakoaren arabera.

e) Interes-taldeak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan badihardute eta inskribatuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko interes-taldeen erregistroan edo harekin koordinaturik funtzionatzen duen parte-hartze eta lankidetzarako beste erregistroren batean, legeak xedatutakoaren arabera.

f) Zuzenbide publikoko korporazioek, administrazio-zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

5. Artikulu honetan adierazitako subjektu publikoen kontura edo izenean zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala baliatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek

subjektu horiei lagundu beharko diete, aldez aurretiko errekerimendua eginda, lege hau betetzeko behar den informazio guztia emateko xedez. Kontratu publikoen esleipendunek ere izango dute betebeharr hori, dagokien kontratuan adierazitakoaren arabera.

## **9. artikulua. Arau-hausteen gaineko informazioa ematen duten pertsonen babesari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala**

Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 24. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lege honek adierazten du lege honen V. tituluko Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza informatzaileak babesteko agintaritza independentea dela eta eskumena daukala honako subjektu hauek ukitzen dituzten informazioak kanpoko kanalaren bidez izapidetzeko:

- a) Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan adierazita dauden eta euskal sektore publikoa osatzen duten kide guztiak.
- b) Eusko Legebiltzarra eta lurralde historikoetako batzar nagusiak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Arartekoa ere.
- b) Sektore pribatua osatzen duten entitateak, baldin eta ez-betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremura mugatzen bada.

## **II. TITULUA.– Jarduera publikoaren gardentasuna**

### **I. KAPITULUA.– Publizitate aktiboa**

## **10. artikulua. Publizitate aktiboaren printzipio gidariak**

Publizitate aktiboa gidatzeko, 29. artikuluan informazio publikorako irispidea mugatzeko adierazita dagoen muga besterik ez dela, lege honen 3. artikuluan xedatutako printzipioak ez ezik, honako printzipio hauek ere hartuko dira kontuan:

- a) Egiazkotasun-printzipioa: Informazio publikoak egiazkoa eta zehatza izan behar du, eta benetakotasuna, fidagarritasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta zaintza-katea egiaztatuta dauzkaten dokumentuak izan behar ditu iturri.
- b) Erabilgarritasun-printzipioa: Ematen den informazio publikoak, ahal dela, eskaerako helburuak betetzeko egokia izan behar du.
- c) Doakotasun-printzipioa: Informaziorako irispidea eta iristeko eskabideak doakoak izango dira, hargatik eragotzi gabe ordainaraztea kopiak egitegatik edo jatorrizkoaz beste formatu batera aldatzeagatik.

d) Antolaketa-printzipioa: Informazioa informazio-dokumentu eta -baliabideez egituratuta eman beharko da, informazioa errazago identifikatu eta aurkitu ahal izateko.

e) Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta pertsona guztientzako diseinua: Informazioa ulergarria, iristerraza eta doakoa izango da, eta desgaitasuna duten pertsonak eskura izango dute irisgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzen duten bitarteko edo formatu egokietan emandako modalitate batean.

f) Elkarreragingarritasun-printzipioa: Informazioa argitaratzeko, datuak partekatzea eta informazioa trukatzeko posible egiten duten prozedurak baliatuko dira, indarreko legeekin bat etorritik.

## **11. artikulua. Publizitate aktiboaren arloko betebeharrak**

1.– Lege honek betebeharra ezartzen dien subjektuek beren ekimenez argitaratu beharko dute lege honek adierazten duen informazio publiko aipagarria aldi-aldi, eguneraturik, denbora errealean eta geolokalizaturik; haren bidez, jardunaren gardentasuna bermatuko da, herritarrek gai publikoetan parte hartu eta kontrolatzeko aukera izan dezaten.

2. Publizitate aktiboaren xede den informazioa emateko erantzukizuna organismo publikoetako zuzendaritza-organismoetako titularrena da, bai eta argitaratu beharreko informazioa daukaten gainerako entitateen arduradunena ere.

3. Betebehar hori ondo betetzeko, behar diren bitartekoak jarriko dira (batez ere, elektronikoak), errazagoa izan dadin datuak birbanatzea, berrerabiltzea eta ustiatzea, eta informazioa guztiz eguneratuta egotea eta irispide erraza izatea bermatuko da, bai eta gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egotea ere, indarrean dauden legeek ezarritako moduan. Horretarako, informazioa modu seguruan eta ulergarrian ikusarazteko eta ustiatzeko bitartekoak garatuko dira aplikazio-eremuan sartzen diren entitateen eta erakundeen egoitza elektronikoetan, atarrietan edo web-orrietan.

4. Interes sozial edo kulturalerako helburuak besterik ez duten irabazi-asmorik gabeko entitateek, 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko; bitarteko elektroniko horiek eskura jarriko dizkie jasotzen duten laguntza edo dirulaguntza publikoaren zatirik handiena ematen dien Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak. Sektore publikoaren beraren bitarteko elektronikoaren erabilera hori erregelamendu bidez arautuko da.

5. Lege honen arabera argitaratu behar den informazioa, oro har, hiru hilabetean behin argitaratuko da, hargatik eragotzi gabe publizitatearen arloko araubide zorrotzago bat ezartzen duten eta aplikatu behar diren bestelako xedapen espezifiko partikularrek xedatutakoa, bai edukiari dagokionez, bai aldizkakotasunari dagokionez.

6. Lege honen arabera behartuta dauden entitate publikoek beren tratamendu-jarduerekin inbentarioa argitaratuko dute, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.



## **12. artikulua. Publizitate aktiboko betebeharren betetze-kontrola**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak kontrolatuko du kapitulu honetako betebeharrak betetzen diren ala ez.
2. Aurreko apartatuan xedatutako eskumenaz baliatuta, agintaritza horrek, erregelamenduz ezarritako prozedurarekin bat etorritik, ebazpenak eman ahal izango ditu, ez betetzeari uzteko behar diren neurriak hartzeko eta egoki diren diziplina-jarduketak hasteko.

## **13. artikulua. Gardentasun-ataria**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta instituzionalaren eremuan, lege honetan zehaztutako argitalpenak gardentasun-atariaren bidez egingo dira, zeina gardentasunaren arloko eskumena duen zuzendaritza-organoari atxikita baitago organikoki eta funtzionalki. Eskakizun teknikoak eta antolakuntzakoak erregelamendu bidez garatuko dira, eta irisgarritasun-, elkarreragingarritasun- eta berrerabilera-printzipioetara egokituko dira.
2. Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren toki-administrazioek eta gainerako entitate eta subjektuek bermatu behar dute titulu honetan zehaztutako argitalpena egiten dela beren egoitza elektronikoen, atarien edo web-orrien bidez, hargatik eragotzi gabe administrazioarteko lankidetzak-neurriak, betiere esparru honetan: elkarreragingarritasuna errespetatzea eta Administrazio autonomikoaren gardentasun-ataritik egon beharreko irispidea errespetatzea.

## **14. artikulua. Publizitateari loturiko informazioa**

Administrazio publikoek eta gardentasun-betebeharrari lotuta dauden gainerako entitate eta antolakundeek argitara eman beharko dute kapitulu honetan zehaztutako eremu hauei buruzko informazio aipagarria, hargatik eragotzi gabe sektore bakoitzaren legeetan exijitutako betebeharrak partikularrak:

- a) Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa
- b) Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa
- c) Garrantzi juridikoa duen informazioa
- d) Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa
- e) Kontratuei buruzko informazioa
- f) Jarduera publikoari buruzko informazioa
- g) Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa
- h) Interes orokorreko informazioa

## **15. artikulua. Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa**



1. Lege honen arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektuek gai hauei buruzko informazioa argitaratuko dute: zer-nolako eginkizunak betetzen dituzten eta zer araudi aplikatzen zaien; batez ere, estatutuak eta antolaketa-arauak, egoitzen kokapen fisikoa, bai eta jendearentzako ordutegia ere, eta, hala badagokio, arreta emateko eta izapideak egiteko bide elektronikoak. Berariaz argitaratuko dute erakundearen bertan publizitate aktiboaren eta pasiboaren betebeharrak betetzeko eskumena duen organoari edo ardura duten pertsonen buruzko informazioa.

2. Horretarako, entitateek organigrama eguneratu bat egingo dute, eta hor identifikatuko dituzte agintariak, organo bakoitzeko arduradunak, eta entitateak gidatzen dituzten zuzendaritza-kideak, bakoitzaren profil eta ibilbide profesionalarekin batera; halaber, direktorio bat ere egingo dute, betetako lanpostuari buruzko informazioa, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoak behintzat bilduko dituen.

#### **16. artikulua. Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa**

1.-Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuek urteko eta urte bat baino gehiagoko planak eta programak argitaratuko dituzte, eta han helburu zehatzak ezarriko dituzte, bai eta helburu horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, bitartekoak eta denbora ere. Aldian-aldian, betetze-maila eta emaitzak ebaluatu eta argitaratu beharko dira, neurketa- eta balorazio-adierazleekin batera, administrazio eskudun bakoitzak ezarritako moduan.

2. Artikulu honetan aipatutako informazioaren argitalpena, gutxienez, urtean behin eguneratuko da; nolahi ere, urte bati baino gehiagori badagokio, epe luzeagoa eman daiteke, baldin eta denbora luzeagoa behar bada ondorio positiboak edo negatiboak diren jakiteko, edo emaitzen ebaluazioa egiteko ezarritako denbora-esparrua aldi hori luzeagoa bada, eta, hala bada, ebaluazioa onartzeaz batera argitaratuko da.

#### **17. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa**

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta aplikatu behar duten heinean, informazio hau argitaratuko dute:

a) Beren eskumen-eremuan aplikagarri zaizkien indarreko legeak, alde batera utzita aldizkari ofizialetan eta egoitza elektronikoetan argitaratzen diren.

b) Gidalerroak, instrukzioak, erabakiak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbideko interpretazioa behar duten edo herritarrei ondorio juridikoak dakarzkien neurrian.

c) Beren ekimenekoak diren lege-aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak, organo aholku-emaleei irizpenak eskatzeko unean edo, irizpenak nahitaezkoak ez badira, hasierako eta amaierako onarpena ematen zaien unean. Informazio edo erakustaldi publikoaren izapidea behar duten dokumentuak argitaratuko dira, bai eta arau-eraginari buruzko memoria ere.



d) Indarrean dauden administrazio-prozedura guztien katalogo eguneratua, eta, horien artean, formatu elektronikoa dauden prozedurena. Kasu guztietan, administrazio-isiltasunari eta jar daitezkeen errekursoei buruzko informazioa erantsiko da.

2. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak, halaber, behartuta daude hauek behintzat argitaratzera: jabari publikoan edo zerbitzu publikoen kudeaketan eragina izan dezaketen baimenak, erantzukizuneko aitortpenak eta aurretiazko komunikazioak.

## **18. artikulua. Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa**

1. Lege honek xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek honako hauei buruzko informazioa argitaratuko dute: eragin ekonomikoarengatik herritarren interesekoak diren administrazio-prozedurak eta ekonomiari eta aurrekontuei eragiten dieten administrazio-kudeaketako ekintzak, bertan adierazita zein diren xedea, izapideak eta epeak, bai eta, hala badagokio, atxikitako formularioak ere.

2. Bereziki, eta laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, hau:

a) Aurrekontu-ekitaldian zehar egindako dirulaguntza-programetarako deialdiak arautzen dituzten arauen zerrenda argitaratuko dute urtero, bai eta indarrean daudenena ere, eta bertan adieraziko dute zenbatekoak diren laguntzak, zer xede eta helburu duten, eta zer baldintza bete behar dituzten pertsonak edo enteek onuradun izateko.

b) Emandako dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradunen zerrenda argitaratuko dute, zenbatekoak eta helburu edo xedek adierazita, hargatik eragotzi gabe onuradunen zaurgarritasun sozialaren ondorioz justifikatutako salbuespenak edo eskubide edo interes legitimoetan eragina izateagatik justifikatutako salbuespenak.

c) Informazio estatistikoa argitaratuko dute, batetik, dirulaguntzen zenbateko osoari buruz, eta dirulaguntza horiek banakatu egingo da, kontuan hartuta, batetik, dirulaguntzok zer prozeduraren bidez eman diren eta, bestetik, prozedura bakoitzak zer-nolako ehunekoa hartzen duen dirulaguntzen aurrekontu orokorrean.

3. Argitara eman beharko dira egiten diren lankidetzak-hitzarmen guztiak, eta hauek izango dituzte kontsignatuta: alderdi sinatzaileak, hitzarmenaren xedea, iraupena, egindako aldaketak, prestazioak eta hitzartutako betebeharrak ekonomikoak. Halaber, sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratu beharko dira, hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta, halakorik badago, azpikontratazioak eta haien esleipendunak, esleipen-prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.

4. Argitara eman beharko da zenbateko ordainsariak hartzen dituzten urtean titulu honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargudunek eta arduradun nagusiek. Halaber, hala badagokio, kargua uzteagatik hartzen diren kalte-ordainak ere argitaratuko dira.

5. Argitara eman beharko dira enplegatu publikoei eragiten dieten bateragarritasuna baimendu edo aitortzeko ebazpenak, bai eta kargugabetu ostean jarduera pribatuan aritzeko baimena ematen dutenak ere, legez baimen hori beharrezkoa denean.



## **19. artikulua. Kontratuei buruzko informazioa**

1. Lege honek xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek programatutako kontratuei eta formalizatutako kontratu guztiei buruzko informazioa argitaratuko dute, hauek adierazita: kontratuaren xedea eta kontratu mota, lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa, esleipen-prozedura eta baldintza tekniko eta administratiboen agiria.
2. Halaber, adieraziko da kontratua zein bitartekoren bidez iragarri den –hala badagokio–, prozeduran zenbat lizitatzailer parte hartu duten eta esleipenduna nor den edo kontratua hutsik geratu den, bai eta formalizazio-eguna, egiten hasteko eguna, kontratuaren aurreikusitako iraupena eta kontratuan sartutako aldaketak ere; bereziki, kontratuaren luzapenak, kontratu-lagapenak, prezioen berrikusketak, kontratuaren suntsiarazpenak edo baliogabetasun-kasuak eta azpikontratazioak, azken horren kasuan azpikontratista nor den zehaztuta. Atzera egiteko erabakiak eta kontratuei egindako ukoak ere argitaratuko dira.
3. Argitara emango da zenbat kontratu esleitu diren sektore publikoko kontratuen legeetan xedatutako prozeduretako bakoitzaren bidez, bai eta prozedura bakoitzaren aurrekontu-bolumenaren ehunekoari buruzko datu estatistikoak ere; hala, jakin ahal izango da azken 4 urteotan kontratu-modalitate bakoitzean kontratatutako ehunekoak zein diren, eta sektore publikoarekiko kontratua egin duen enpresa bakoitzak jaso dituen ehunekoak zein diren ere bai. Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilabeterik behin argitara daiteke.
4. Artikulu honetan aipatutako argitalpenetatik salbuetsiko dira kontratu-legeen arabera argitaratuzetik salbuetsita dauden kontratuak.

## **20. artikulua. Jarduera publikoari buruzko informazioa**

1. Lege honek xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek, gardentasun-printzipioan oinarrituta, aditzera emango dute zein den beren jarduna, garrantzi publikoa baldin badu.
2. Bereziki hauek hartuko dira halakotzat:
  - a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko Gobernu Kontseiluaren erabakiak.
  - b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateetako gobernu-organo edo administrazio-organoen erabakiak.
  - c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunen eta zuzendaritza-kideen agenda osatzen duten ekitaldi publikoak.
3. Lege honek xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek informazio hau emango dute, iristeko eta ulertzeko moduan eman ere, argi eta garbi: zer zerbitzu publiko eman dituzten, zer prestazio dauzkaten aurreikusita, haien erabilgarritasuna, zerbitzu-kartak eta bakoitzaren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze- eta kalitate-maila baloratzeko beste edozein informazio. Kexa eta





iradokizunen ontzia izango dute guztiek, edo zerbitzuak edo prestazioak bete ez izana prozedura arin eta erraz baten bidez salatzeko modu bat.

## **21. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa**

Lege honek xedatutakoaren arabera, gardentasun-printzipioan oinarrituta, informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek beren entitate guztien aurrekontuei buruzko informazio hau guztia emango dute jakitera, aplikatu behar zaizkien aurrekontu-araudiarekin eta kontrol-eta kontabilitate-araudiarekin bat etorriz: aurrekontu-partida nagusien deskribapena eta haien gauzatzeari eta likidazioari buruzko informazio ulergarri eguneratua, zorpetze-maila, aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuen betetze-maila, finantza- eta ondare-egoera adierazten duten aldagaiak, eman beharreko urteko kontuak, kanpoko kontrol-organoek egindako kontu-ikuskaritza eta fiskalizazioen txostenak.

## **22. artikulua. Interes orokorreko informazioa**

1. Kasu bakoitzerako araudi espezifikoak ezartzen dituen informazio-betebeharrak betetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek argitara emango dute herritarrentzat interes orokorrekoa den informazioa; esate baterako, informazio kartografikoa eta trafikoari, eguraldiari, ingurumenari, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari, kulturari, osasunari eta hezkuntzari buruzko informazioa.
2. Aditzera emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarrek parte hartzeko kanalak, zein den zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, zenbat erreklamazio aurkeztu diren eta zenbat edo zelako ehunekoa onartu den edo ebatzi den herritarren alde.
3. Halaber, argitara emango da bai herritarrek gehien eskatzen duten informazioa bai lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuta gehien eskatzen den informazio publikoa.

## **23. artikulua. Datuak berrerabiltzea eta irekitzea**

1. Gardentasuna hobetzeko, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta gizartearen balioa sortzeko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek beren esku dauden datu publikoak eraginkortasunez irekitzeko behar diren ekintzak sustatu behar dituzte, betiere datuak berrerabiltzeko eran eta pribatutasun-, segurtasun- edo jabetza-murrizketak erabat errespetatuta.
2. Datuak, oro har, inolako lizentzia edo baldintza espezifikorik behar izan gabe eta formatu digital, estandarizatu eta irekian eman behar dira, libre eta doan, datuon birbanaketa, berrerabilera eta aprobetxamendua errazteko. Egitura argi eta esplizitu baten arabera emango dira, bai herritarrek eta bai eragile konputazionalek ulertzeko eta berrerabiltzeko era batean. Hala ere, datu jakin batzuk berrerabili ahal izateko, aurretik lizentzia emateko eskatu ahal izango da. Erregelamenduz zehaztuko dira eskakizun hori justifikatzen duten kasuak.



3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak informazio publiko berrerabilgarriaren baliabideetarako irispidea emango du, baliabideok sarbide-puntu erkide batean eskueran jarrita. Puntu hori Gobernu Irekiaren plataforman egongo da, eta han informazio zehatza eta eguneratua emango da datu multzo bakoitzaren ezaugarriei buruz. Bereziki, administrazio publikoen esku dauden datu eta dokumentu elkarreragingarrien zerrenda emango da jakitera, bai eta haien aplikazio informatikoen iturburu-kodea ere, baldin eta aplikazio horiek iturri irekiko aplikazio informatikoen direktorio baten zati badira.

4. Halaber, espazio bat jarri beharko da sarbide-puntuan bertan, herritarrek proposamenak eta iradokizunak egiteko, bai eskatutako edo emandako informazioari buruz eta bai erabilitako formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruz. Espazio horretan, lekua egin ahal izango da datuak irekitzearekin eta berrerabiltzearekin zerikusia duten aplikazio informatikoetan parte hartzeko ere.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak Interneten presentzia izateko ereduaren esparruan, Gobernu Irekiaren tresna batzuk garatuko dira Interneten, partekatze eta doan eta libreki berrerabiltzeko.

## **II. kapitulua.– Informazio publikorako irispidea**

### **24. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea**

1. Pertsona oro, fisikoa zein juridikoa izan, informazio publikoa irispidean izateko eskubidearen titularra da; horretaz baliatzeko, aldez aurretik eskatu behar du eta legean ezarritako mugak baino ez ditu izango.

2. Eskubide hori baliatzeko, ez da eskabidea arrazoitu behar, ez eta araurik argudiatu behar ere, ez baita betebeharreko baldintza ez interesduna izatea, ez bestelako eskubide edo interes legitimorik izatea.

3. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak ez ditu eragotziko gainerako eskubideak eta prozedurak. Hala, ez da horrela izango administrazioarekiko beste komunikazio mota batzuekin, hauekin, esate baterako: eskaera-eskubidea, herritarrei arreta emateko kanalen bidezko informazio orokorreko kontsultak, kexak eta iradokizunak, edo datuen babesari buruzko araudian araututako eskubideak baliatzea. Horrelakoetan, eskabidea prozedura edo kanal espezifikora bideratuko da, eta eskatzaileari jakinarazi hala egin dela.

4. Informaziorako irispidearen gaineko araubide juridiko espezifikoak daukaten eremuetan, araudi zehatz horren bidez gidatuko dira eta, osagarri gisa, lege honen bidez. Egoera horietan, lege honek xedatu ez dituen beste murrizketa batzuk aplikatu daitezke, baina, soilik, lege-mailako arau batek ezartzen baditu.

### **25. artikulua. Informazio publikoa eskatzen duen pertsonaren eskubideak**

Informazio publikoaren eskatzaileak eskubide hauek dauzka:

- a) Lege honek ematen dizkion eskubideez informatua izateko, eta zuzen baliatzeko aholkularitza jasotzeko, administrazio onaren eskubidearekin bat etorritz.
- b) Eskatzen duen informazioa jasotzeko, lege honek ezartzen dituen gehieneko epeetan.
- c) Eskatutako informazio publikoa berak aukeratzen duen eran eta formatuan jasotzeko, legearekin bat etorritz.
- d) Jakiteko zergatik ez zaion ematen eskatutako informazioaren zati bat edo informazio osoa, eta jakiteko zergatik ez zaion ematen informazioa berak eskatutako formatuan edo eran.
- e) Eskatutako informazioa jasotzeko aplikatzen dakizkiokeen tasak eta prezioak jakiteko, eta ordaintzetik salbuetsita geratzeko arrazoen berri izateko.
- f) Jasotako informazioa erabiltzeko, aurretiazko baimenik gabe, lege honetan eta gainerako ordenamenduan ezarritako mugen barruan.

## **26. artikulua. Informazio publikora iristen diren pertsonen betebeharrak**

Halaber, informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatu nahi duten pertsona eta entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beren eskubidea fede onaren printzipioaren eta eskubide-abusuaren interdikzioaren printzipioaren arabera baliatzea eta, bereziki, informazio publikora iristea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasunari kalterik egin gabe eta eskabideak ahalik eta zehatzen eginda. Horretarako, Administrazioak eta eskatzaileak elkarri lagunduko diote administrazio onaren eskubideak agindu bezala.
- b) Lortutako informazioa berrerabiltzeko oinarrizko araudian ezarritako betebeharrak betetzea.
- c) Dagokion ebazpenak informaziora iristeko ezarri dituen baldintza eta betekizun materialak betetzea, baldin eta informaziora iristeko modalitate jakin bat erabili behar bada edo artxibategi edo bulego publiko batean aurrez aurre egin behar bada.

## **27. artikulua. Informazio publikorako irispide-modalitatea**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak barnean hartzen du informazioa prestatzeko edo gordetzeko edozein forma edo euskarri.
2. Administrazio publikoek dokumentuak, informazioa eta datuak kudeatzeko sistema integratu bat ezarri behar dute, zeinaren bidez posible izan behar baita bai administrazioen arteko elkarrengarritasuna, bai edozein dokumentu edo informazio aurkitzea, eta bai dokumentu edo datu-multzo oro irispide- eta publizitate-araubidearekin automatikoki lotzea.
3. Eskabidea egiteko erabilitako edo eskatzaileak eskatutako euskarrian eta formatuan emango da informazioa, salbu eta hauetariko inguruabarren batean:
  - a) Publizitate aktiboaren printzipioari jarraikiz edo beste moduren batean, informazioa eskatzailearen eskura badago dagoeneko, eta, hortaz, informazioaz erraz jabetzeko modua



badauka. Kasu horretan, Administrazioak edo dagokion entitateak, informaziorako irispidea emateko, aukeran dauka inguruabar horren berri ematea eta informazio hori nola lortu dezakeen adieraztea.

b) Behar bezala justifikatzen bada arrazoi teknikoak direla-eta ez dagoela kopia formatu jakin batean bidaltzerik, edo ezinezkoa edo izugarri garestia dela informazioa eskatzaileak eskatutako moduan ematea; kasu horretan, Administrazioak edo dagokion entitateak beste moduren batean eman beharko du informazioa, informazioa aurrez aurre erakutsita ere bai, berma dadin informaziora iristeak ez duela sortzen neurritz kanpoko gasturik, ez dakarrela jatorrizkoa galtzerik edo hondatzerik edo, oro har, modalitate hori justifikatzen duten bestelako arazoak saihesten direla.

## **28. artikulua. Doakotasun-printzipioa eta kostuak**

1. Informaziorako irispidea doakoa da.

2. Kopuru bat baino ez da kobratuko, dagokion araudiarekin bat etorritz, kopiak egiten badira edo informazioa jasotzen duen jatorrizko bertsioa beste formatu batera pasatzeak kosturen bat eragiten badu. Kopuru hori ezin izango da izan eragindako benetako kostua baino handiagoa.

## **29. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea mugatzea**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea legeek espresuki ezarritako arrazoiengatik bakarrik ukatu edo murriztu daiteke.

2. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen mugak xedearekiko eta helburuarekiko proportzioan aplikatuko dira, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarren arabera, eta talka egiten duten eskubideak interes publikoaren eta babestutako interesen arabera haztatuko dira; gainera, modu murriztaile batean interpretatuko da beti, hau da, irispidearen eskubidearen mesedetan eta, betiere, berdintasun-printzipioaren eta arbitrariotasun-interdikzioaren printzipioarekin bat etorritz.

3. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ukatu edo mugatzea printzipio orokorraren salbuespena da eta, beraz, aurreko apartatueta adierazitako printzipioen araberrako arrazoi sendoak eman beharko dira, eta kausa hauetan eta oinarritzko legeek aitortutako kausetan baino ezin izango dira oinarritu:

a) Datu pertsonalak babestea, lege honek xedatutakoaren arabera.

b) Konfidentziasuna eta sekretua bermatzea erabakiak hartzeko prozesuetan.

c) Zaintzako, ikuskapeneko eta kontroleko administrazio-eginkizunak.

d) Lege-mailako arauak babesten duten informazio guztia.

4. Adingabekoei buruzko informazioa babestutzat joko da kasu guztietan, baldin eta informazio hori jakiteak edo zabaltzeak nortasunaren garapen askea baldintzatu badezake etorkizunean, salbu eta izaera anonimoa bermatu ahal bada.

5. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea legeek ezarritako denborarako baino ez da ukatuko edo mugatuko, edo neurri hori justifikatzen duten arrazoiek dirauten bitartean.

6. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ukatu edo mugatzea erabakitzeke diren ebazpenak argitaratu egingo dira, interesdunei jakinarazi ondoren; baina, lehenago, bertan agertzen diren datu pertsonalak disoziatuko dira.

### **30. artikulua. Datu pertsonalak babestea**

1. Hirugarrenen datu pertsonalak dauzkan informazio publikora iristeko eskabideak ebazteko, datu pertsonalen babesari buruzko arauetan xedatutakoa bete beharko da.

2. Informazio publikora iristeko eskabideak ukatu egingo dira, baldin eta lortu nahi den informazioak bereziki babestutako datu pertsonalak badauzka, hala nola ideologiari, sindikatu-afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, jatorriari, osasunari eta bizitza eta orientazio sexualari buruzko datuak eta datu biometrikoak edo genetikoak, eta, hala badagokio, arau-hausleari ohartarazpen publikoa egitea ez dakarten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak ere, salbu eta ukitutako pertsonak espresuki onartzen badu eskabidearekin batera aurkeztu behar den idazki baten bidez.

3. Informazio publikora iristeko eskabidearen xedeak lotura zuzena badu dagokion entitate publikoaren antolamendurekin, funtzionamendurekin edo jarduera publikoarekin, eta hango datu pertsonalak identifikazio-datuak baino ez badira, baimena emango da informazio hori irispidean izateko, salbu eta, kasu jakin horretan, dibulgazioaren interes publikoaren gainetik gailendu behar bada datu pertsonalen babesa edo Konstituzioak babestutako beste eskubide batzuk.

4. Nolanahi ere, ez da irispiderik emango, inguruabar bereziak daudela iritziz gero, hau da, datu pertsonalen babesa informazio-dibulgazioaren interes publikoaren gainetik badago edo ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudia gordetzeko eskubidea zaindu behar bada.

5. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ezin izango da ukatu edo mugatu, baldin eta irispidea ematen bada datu pertsonalak bereizi ondoren, halakorik egonez gero, eta, modu horretan, ukitutako pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

### **31. artikulua. Iripide partziala**

Eskatutako informazioaren zati bat aurreko artikuluetan zerrendatutako mugaren baten eraginpean badago, ahal dela, irispide partziala emango da; horretarako, ez da jarriko mugen eraginpeko zatia, salbu eta horrek informazio distortsionatua, nahasgarria edo zentzugabea eragiten badu. Horrelako kasuetan, eskatzaileari adieraziko zaio informazioaren zer zati utzi den eman gabe.

### **32. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabideak izapidetu eta ebazteko organo eskudunak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta instituzionalaren eremuan, informazioa daukaten zuzendaritza-organoetako titularren eskumena da informazio publikorako irispidea izateko eskabideak izapidetu eta ebaztea.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari atxikitako edo lotutako entitate instrumentaletan, estatutuek edo funtzionamendu-arauek zehazten dute zein diren organo eskudunak.
3. Manu horiek aplikatu behar dituzten gainerako erakunde eta antolakundeek funtzionamendu-arauetan ezarriko dute eskumen hori, lege honen arabera.

### **33. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko prozedura**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatzeko prozedura berezia da. Lege honetan xedatutakoa betetzeaz gain, modu osagarrian, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko arauak ere bete behar dira.
2. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea balia daitekeela bermatu eta errazteko, kendu beharko dira oztopo eta eragozpen diren eskakizun eta betekizun guztiak, prozeduran interesa duten pertsonen identifikazioari eta sinadurari dagokienez batez ere.

### **34. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatzeko prozesua eskabidea aurkezten denean hasiko da; eskabide hori informazioa duen administrazio-organo edo entitatearen titularrari zuzendu beharko zaio. Zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala duten pertsona fisiko edo juridikoen esku dagoen informazioa bada, eskabidea pertsona horiek atxikita dauden eta titulu honen aplikazio-eremuan dagoen administrazioari, organismoari edo entitateari zuzenduko zaio. Eskabidea zuzenean entitate pribatu horiei aurkezten bazaie, haiek atxikita dauden organo publikoari igorriko diote, erregistratu eta ebatz dezan, eskatutako informazioarekin batera, baldin eta haien esku badago.
2. Eskabidea edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da, eta alderdi hauek behintzat adierazi beharko ditu:
  - a) Eskatzailearen izena.
  - b) Zer informazio eskatu den, zehatz-mehatz deskribatuta, dokumentu edo espediente zehatzik aipatu beharrik gabe.
  - c) Hala badagokio, zer modalitate edo formatutan nahi duen izan eskatutako informaziorako irispidea.
  - d) Harremanetarako helbide bat, ahal dela, elektronikoa, komunikazioetarako.
3. Eskatzaileak ez du nahitaez arrazoitu behar zergatik nahi duen informazio publiko horretarako irispidea izan, eta ez arrazoitzea ez da izango baztertzeke kausa. Hala eta guztiz ere, informazio



hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu eta, ebazpena emateko orduan, kontuan hartu ahal izango dira.

4. Eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe Euskal Sektorre Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 76.3 artikuluan xedatutakoa.

### **35. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ez onartzeko kausak**

Kasu hauetan soilik oinarritutako ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko da eskabidea ez onartzea:

a) Informazioa prestatzen ari bada edo argitalpen orokor batekoa bada, kasu horretan, ez onartzeko ebazpenak zehaztu beharko du zer organo ari den informazio hori prestatzen eta zenbat denbora daukan aurreikusita amaitzeko eta irispidean jartzeko.

b) Barne-komunikazio osagarri edo lagungarri buruzkoa bada, hala nola garrantzirik edo interes publikorik ez daukaten oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barneko edo administrazio-organoko edo -entitateen arteko komunikazio eta txostenetan dagoena. Nahitaezko txostenei ez zaie emango eskabidea ez onartzea justifikatzeko nahikoa den izaera osagarri edo lagungarri hori.

c) Informazio hori hedatu aurretik modu konplexu batean prestatu behar bada berriro. Eskatutako informazioak tratamendu informatizatu arrunta behar badu eskatzaileari eman aurretik, tratamendu hori ez da joko informazioaren birprestatzetzat; beraz, ez du balio izango eskabidea ez onartzeko justifikazio gisa.

d) Eskabidea jasotzen duen erakundeak informazioa ez badauka, eta ez badaki zer entitatek daukan.

Eskabidea nabarmen errepikakorra bada edo, lege honen gardentasun-xedeari erreparatuta, justifikatu gabeko abusuzko izaera badu.

### **36. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea izapidetzea**

1. Eskabidea entitate hartzailearen esku ez dagoen informazioari buruzkoa bada, entitate horrek organismo eskudunari bidaliko dio, baldin eta zein den badaki, eta eskatzaileari emango dio horren berri.

Horretarako, administrazio publikoek lankidetzabideak jarriko dituzte, hori dela-eta beren sektore publikoetan eskabideak erreproduzitu beharrak dakartzan administrazio-kargak murrizteko xedez.

2. Eskabidean ez bada nahiko identifikatzen informazioa, entitate hartzaileak eskatzaileari eskatuko dio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko dio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta ebazpena emateko epea eten dela. Adierazitako epea igarotzen bada zuzenketa egin gabe, eskabidea ebazpen baten bidez artxibatuko da eta

eskatzaileari jakinaraziko zaio, errekurtsua aurkezteko aukera izan dezan edo, hala badagokio, beste eskabide bat egin dezan, zer eskatzen duen edo zer informazio nahi duen zehazteko.

3. Eskabidea behar bezala identifikatutako hirugarrenen eskubide edo interesei eragiten dien informazioari buruzkoa bada, ebazteko organo eskudunak entzunaldiaren izapidea egingo die hirugarren horiei, hamabost eguneko epean egoki deritzotena alega dezaten eta, hala badagokio, adostasun espresua eman dezaten. Eskatzaileari horren berri eman beharko zaio, eta adieraziko zaio bere eskabidea ebazteko epea eten dela eraginpeko hirugarrenen alegazioak edo baimena jaso arte edo horiek aurkezteko emandako epea bukatu arte.

4. Baldin eta eskabidearen xede den informazioa, eskabidearen hartzailearen esku egon arren, beste batek egin edo sortu badu osorik edo nagusiki, eskabidea beste horri bidaliko zaio, berak erabaki dezan irispidea eman ala ez.

### **37. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ebaztea**

1. Informazio publikorako irispidea eman ala ez erabakitzen duen ebazpena eskatzaileari jakinarazi behar zaio, bai eta eraginpean dauden eta hala eskatu duten hirugarrenei ere, ebazteko organo eskudunak eskabidea jaso eta gehienez ere hilabeteko epean.

2. Epe hori hamabost egun gehiago luzatu ahal izango da, baldin eta hala behar bada eskatutako informazioaren bolumenarengatik edo konplexutasunarengatik, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.

3. Egokiro arrazoitu beharko dira bai irispidea ukatzen duten ebazpenak, bai irispide partziala edo eskatutakoa ez den modalitate baten bidezko irispidea ematen dutenak, bai hirugarren bat aurka azaldu arren irispide hori ahalbidetzen dutenak.

4. Ebazteko gehieneko epea igaro eta ebazpen espesurik eman eta jakinarazi ez bada, ulertuko da informazio publikorako irispidea ezetsi egin dela.

### **38. artikulua. Informazioa irispidean jartzea eta ematea**

1. Eskabide baten ebazpena osorik edo zati batean baiestekoa bada, eskatutako informazioa erantsiko zaio ebazpenari, edo, lege honetan xedatutakoaren arabera informazioa iristeko beste modalitaterik baldin badago, informazio horretara berehalakoan nola iritsi adieraziko da; eskubide hori benetan balia daitekeela bermatu beharko da horrela, informazio osora ahalik eta eperik laburrenean iristeko bidea emanda.

2. Ebazpenak hirugarren bati eragiten dion informazio baterako irispide osoa edo partziala ematen badu eta hirugarren hori kontra azaldu bada aurreko gorabeheran, informaziorako irispidea ezin izango da benetan gauzatu, harik eta hirugarrenak ebazpena Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan, 39. artikuluaaren arabera, edo jurisdikzio-bidean errekurritzeko daukan epea amaitu arte, errekurtsorik jartzen ez badu, edo eskatzaileak informazioa jasotzeko eskubidea duela baieztatzen duen ebazpen irmoa eman arte, errekurtsua jartzen badu.





### **39. artikulua. Aurkaratze-prozedura**

1. Informazio publikorako irispidearen arloan emandako ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta errekurtsua aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hargatik eragotzi gabe lege honetan xedatutako aukerako erreklamazioa Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan jartzeko aukera, edo, hala badagokio, informazio publikorako irispideari buruzko erreklamazioetako bitartekaritza-prozedura hasteko eskatzea, halaber, lege honen arauen arabera.

2. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da jarri Eusko Legebiltzarrak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Arartekoak informazio publikorako irispidearen arloan emandako ebazpenen aurka.

### **40. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako aukerako erreklamazioa**

1. Informazio publikorako irispidearen arloko ebazpen espresu ororen edo ustezko ebazpen ororen aurkako erreklamazioak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan jarri ahal izango da, aukeran eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu baino lehen. Aukerako erreklamazio hori administrazio-errekurtsoen ordezkoa izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Erreklamatzeko izapideek prozedura hau beteko dute:

a) Erreklamazioa jartzeko epea hilabetekoa izango da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Egintza espresua ez bada, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrerako edozein unetan jarri ahal izango da erreklamazioa.

b) Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren iritziz, erreklamaturako informazioak hirugarren ondo identifikatuen eskubideak edo interesak ukitu ahal baditu, entzunaldiaren izapidea egingo zaie, beren eskubideei komeni zaiena alega dezaten.

c) Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori pasatzen denean, ezetsizat joko da erreklamazioa.

d) Emandako ebazpenak, interesdunei jakinarazi ondoren, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren webgunean argitaratuko dira; baina, lehenago, bertan agertzen diren datu pertsonalak disoziatuko dira.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak erreklamazio hori ebazteko ematen duen ebazpena betearazlea izango da. Baiespen-ebazpen betearazlea irmoa denean, horren berri emango zaio benetan betetzeko ardura daukan entitateari, eta alderdi hauek behintzat adieraziko zaizkio: zelako irismena duen informaziorako irispideak, zer epe dagoen betetzeko eta zein baldintzatan gauzatu behar den. Eraginpeko entitateak ebazpena betetzeko egindako jarduketan berri eman beharko du eta, ebazpena ezarritako epean betetzen ez badu, interesdunak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari eman ahal izango dio horren berri, betetzeko errekerimendua egin dezan.



4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpenen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa baino ezin izango da jarri.
5. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak informaziorako irispidearen arloan ematen dituen ebazpenak betetzeko egiten dituen errekerimenduak aintzat ez hartzeak erantzukizuna eskatzea ekar dezake, lege honetan xedatutakoarekin bat etorritz.
6. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak zehapen-prozedura hasteko eskatu ahal izango du, lege honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

#### **41. artikulua. Bitartekaritza-prozedura**

1. Alderdietako edozeinek eskatu ahal izango dio Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari bitartekaritza-prozedura has dezala, baldin eta hor aurkeztu bada informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen ondoriozko erreklamazioa; hala, bada, erreklamazioa jarri dela jakin eta bost eguneko epean egin beharko da eskabide hori.
2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, bitartekaritza-prozedurarako eskabidea jaso ondoren, esku hartzen duten alderdi guztiei eman behar die horren berri, eskabideari buruzko iritzia eman dezaten. Administrazioak ezin izango dio uko egin bitartekaritza-prozedura aplikatzeari, baldin eta alderdi interesdun guztiek onartzen badute.
3. Bitartekaritza-prozedurak dirauen bitartean, aurreko artikuluan araututako aukerako erreklamazioaren izapideak etengo dira.
4. Bitartekaritza-prozedura bera onartu eta hilabeteko gehieneko epean gauzatu beharko da. Bitartekaritza-akordiorik lortzen ez bada, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan aukerako erreklamazioaren izapideak aurrera egingo du, eten den puntutik aurrera.
5. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak laguntza teknikoko bere langileen artean hautatu eta izendatuko du bitartekaria, zeinak administrazio-bitartekaritzaren arloko prestakuntza eta ezagutza espezifikoak izan beharko baititu. Bitartekaritza aurrez aurre zein telematikoki egin daiteke.
6. Bitartekaritzaren ondoriozko akordioa hauek onartu behar dute: erreklamazioak, eraginpeko administrazioak eta, hala badagokie, prozeduran agertu diren hirugarrenek. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak berretsi beharko du hartutako erabakia, eta amaiera emango dio prozedurari, eta inola ere ezin izango da izan ordenamendu juridikoaren aurkakoa.
7. Hala erabakitzen badute, esku-hartzaileek bitartekaritza-akordio partzialak egin ditzakete, eta irismena erreklamazioaren xede-zati batera mugatu berariaz. Kasu horretan, erreklamazioaren gainerako izapideek aurrera egingo dute Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpen-prozedura arruntaren bidez.
8. Bitartekaritza-akordioa ezarritako baldintzetan eta epeetan bete beharko da. Ebazpenaren edukiari eta betearazpenari dagokienez, lege honetan Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpenetarako xedatutakoa aplikatu beharko da.



9. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan, informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen ondorioz gauzaten den bitartekaritza-prozedura espezifikoak bete beharko du lege honetan, lege hau garatzeko araudian, eta Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek ezarritako gidalerro eta erabakietan xedatutakoa.

10. Ez dira bitartekaritzapean jarriko pertsonen oinarrizko eskubideei zuzenean eragiten dieten, ordena publikoaren aurkakoak diren edo hirugarrenen interesei kalte egiten dieten gaiak.

### III. kapitulua.– Plangintza eta koordinazioa

#### 42. artikulua. Gardentasunaren arloko plangintza

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak, gardentasunaren arloko sail eskudunak proposatuta, gardentasunaren arloko jarduketak programatu, ezarri eta jarraipena egiteko plan bat onartuko du, lege hau aplikatu eta garatzeko eta arlo horretan etengabe hobetzeko.

2. Plan horretan, hauek behintzat jaso beharko dira: planean garatu beharreko ekintzen zerrenda, ekintza horiek gauzatzeko behar diren jarduketak, aurrekontua, ekintzen betetze-maila jakiteko aukera ematen duten adierazleak, eta betearazpenaren ardura duen zuzendaritza-organoa.

3. Urtero, planaren betetze-maila ebaluatuko da eta, amaitzen denean, inpaktuaren ebaluazioari buruzko azken txosten bat egingo da, eta hor agertu beharko dira hurrengo planean sartu beharreko hobekuntza-proposamenak. Gardentasun-plana eta ebaluazio txostenak argitara emango dira Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-atarian.

4. Gardentasun-plana egin eta ebaluatzen den bitartean, herritarren eta gizarte zibilaren parte-hartzea sustatuko da, bai eta kontuak emateko mekanismoak sartzea ere.

5. Gardentasunaren arloko sail eskudunak koordinatuko du nola prestatzen eta gauzaten den gardentasun-plana, eta jarraipena ere egingo du, sail bakoitzaren eremuko gardentasun-unitateen laguntzarekin.

#### 43. artikulua. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinazioa

1. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eta hark zainduko du bitarteko, plataforma eta garapen informatikoen erabilera partekatua, funts publikoak aplikatzeko efizientzia lortze aldera.

2. Organo horrek planteatuko du nolakoa izango den arlo horretako zuzendaritza-plangintza eta zer-nolako jarraibideak, protokoloak eta irizpideak hartuko diren publizitate aktiboa ezartzeko eta gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko gainerako betebeharren jarraipena egiteko.

3. Organo horren burua izango da gardentasunaren, informaziorako irispidearen eta gobernu irekiaren arloa sustatu, diseinatu, ebaluatu eta jarraipena egiteko eskumena erregelamenduz



esleituta daukan pertsona, eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko goi-kargudun bat izango da partaide; gainera, gardentasunean, gobernu irekian eta informazioaren eta komunikazioen teknologien arloan espezializatutako teknikarien laguntza izango dute.

4. Autonomia-erkidegoko sektore publikoa osatzen duen subjektu bakoitzean, eta dagokion administrazio orokorreko sail bakoitzean, gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta datu irekien arloko eginkizunak izango dituzten administrazio-unitateak sortu edo esleituko dira, eta unitate horietako bakoitza, halaber, dagokion arloan arduratuko da jarduketak koordinatzeaz.

#### **IV. kapitulua.– Zehapen-araubidea**

##### **44. artikulua. Zehapen-araubidea**

1. Lege honetan ezarrita dauden eta betetzen ez diren gardentasun-betebeharrak zehatzeko, hurrengo artikuluetan xedatutakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe beste mota bateko erantzukizunak ere izatea.

2. Kapitulu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez, zehatzeko ahala hauen arabera baliatu behar da: kapitulu hau, Euskal Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea, eta administrazio publikoen araubide juridikoaren arloko gainerako arauak.

##### **45. artikulua. Erantzuleak**

1. Egindako arau-hausteen erantzule dira, lege honetan tipifikatutako ekintzak egiten dituzten edo egina gabe uzten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak –edozein motatakoak direla ere–.

2. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunak edo zuzendaritzakideak dira kapitulu honek jasotzen dituen diziplinazko arau-hausteen erantzule, bai eta haien zerbitzurako enplegatu publikoak ere.

3. Halaber, informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuek eta zuzenbide publikoko korporazioek egin eta kapitulu honetan ezarrita dauden arau-hauste administratiboaren erantzule dira gardentasunari eta informazio publikorako irispideari buruzko betebeharrak aplikatu behar dituzten entitate pribatuak eurak, eta, subsidiarioki, entitate pribatu horietan erantzule eta jardule diren pertsona fisiko edo juridikoak.

##### **46. artikulua. Gardentasunaren arloko arau-hausteak**

1. Hauek dira lege honen arabera behartuta dauden subjektu publikoei edo pribatuei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso astunak:

a) Lege honetan publizitate aktiboari buruz zerrendatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez betetzea, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren berariazko errekerimendua aintzat hartu gabe.

b) Informazio publikorako irispidearen arloan aurkeztu zaizkien erreklamazioetan Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak emandako ebazpen irmo eta behin-betikoak ez betetzea.

2. Hauek dira subjektu horiei berei egotz dakizkiekeen arau-hauste astunak:

a) Lege honetan xedatuta dauden publizitate aktiboaren betebeharrak ez betetzea.

b) Lege honetan ezarrita dauden publizitate aktiboaren printzipio gidarieratik eratorritako eskakizunak bete gabe ematea informazioa.

c) Ez laguntzea Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan aurkezten diren erreklamazioak izapidetzen.

d) Informazio publikorako irispidea arbitrarioki ezatea.

3. Hauek dira subjektu horiei berei egotz dakizkiekeen arau-hauste arinak:

a) Lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko eta lege honek bermatzen dizkien eskubideak baliatzen dituzten herritarrei arreta emateko, arduragabekeriaren edo zabarkeriaren ondoriozko egintzak edo ez-egiteak.

b) Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea epean ebazteko betebeharra justifikaziorik gabe ez betetzea.

4. Aurreko apartatuetan adierazitako arau-hauste oso astunak, astunak eta arinak sektore publikoko langileei egozten zaizkienean, ulertuko da aplikatu behar zaien araudiari buruzkoak direla, kontuan hartuta langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen.

#### **47. artikulua. Zehapenak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura diharduten langileei eta zuzendaritza-kideei egotzekoak diren arau-hausteei kasuan-kasuan aplikatzekoa den diziplina-araudiaren arabera dagozkien zehapenak ezarriko zaizkie, langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen kontuan hartuta.

2. Arau-hausteak goi-kargudunei egotzekoak direnean, honen arabera zehatu ahal izango dira:

a) Arau-hauste arinak kargu-hartze bidez edo 200 eurotik 1.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.

b) Arau-hauste astunak ez-betetzearen deklarazioaren bidez, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuta, edo 1.001 eurotik 6.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.

c) Arau-hauste oso astunak ez-betetzearen deklarazioaren bidez, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuta, edo 6.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isunen bidez, edo kargugabetzearen bidez zehatu ahal izango dira.

3. Informazioa ematera behartuta dauden entitate pribatuei eta zuzenbide publikoko korporazioei dagokienez, zehapen hauek izango dira:

a) Arau-hauste arinak kargu-hartze bidez edo 200 eurotik 5.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.

b) Arau-hauste astunak 5.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatuko dira.

c) Arau-hauste oso astunak 30.001 eurotik 400.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatuko dira.

d) Arau-hauste astunek eta oso astunek eman den dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko zehapen osagarria izan dezakete edo, hala badagokio, kontratua, ituna edo ezarritako lotura suntsiaraztea eragin.

4. Zehapen horiek guztiak ezarri eta mailakatzeko, osagarriak barnean izanik, bereziki irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Erruduntasun-maila edo nahita egina izatea.

b) Jokaera arau-hauslearen jarraitutasuna edo iraunkortasuna.

c) Zer-nolako kalteak eragin diren.

d) Berrerortzea, urte berean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izanagatik, hala deklaratu denean administrazio-bidean irmoa den ebazpen batez.

#### **48. artikulua. Prozedura**

1. Kapitulu honetako zehapenak ezartzeko, hauek bete behar dira: Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeko xedapenak eta zehapen-prozeduraren gainerako arauak, edo, arau-hausteak entitateen zerbitzura diharduten langileei egotzi behar bazaizkie, kasuan-kasuan aplikatzekoa den funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen diziplina-araubidea.

2. Lege honetan ezarritako diziplina-ahala baliatzeko prozedura, ustezko erantzulea goikargudun bat bada, Gobernuako kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako goikarguen bateraezintasun-araubideak ezarritakoari lotuko zaio.

3. Betiere, ofizioz emango zaio hasiera prozedurari, organo eskudunak erabakita, bere ekimenez edo goragoko agindu baten, beste organo batzuen eskabide arrazoitu baten edo partikular baten salaketaren ondorioz.

4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, gardentasunaren arlokoak diren eta titulu honetan adierazitako arau-hauste gisa kalifika daitezkeen ez-betetzearen berri badaki, zehapen-prozedura hastera proposa dezake.



5. Zehapen-prozedura horietan ematen diren ebazpenak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari jakinarazi beharko zaizkio.

#### **49. artikulua. Zehatzeko ahala**

1. Diziplinazko zehapenak ezartzeko eskumena subjektu arau-hauslearen administrazioari edo entitateari aplikatu behar zaion araudian zehaztutako organoarena da edo, hala badagokio, arau-hauslearekiko lotura duen administrazioan edo entitatean aplikatu behar den araudian zehaztutako organoarena.

2. Arau-haustekak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunei egoztekoak badira, arau-hauslea zein sailen mendekoa den, sailburu horrek baliatuko du zehatzeko ahalmena zehapen arin eta astunen kasuan, eta Gobernu Kontseiluak, berriz, zehapen oso astunen kasuan.

3. Funts publikoen kontura laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeagatik edo sektore publikoarekiko kontratuak edo hitzarmenak izateagatik informazioa ematera behartuta dagoen entitate pribatu bat edo zuzenbide publikoko korporazioetako bat bada erantzulea, orduan dirulaguntza edo laguntza publikoa ematen duen edo kontratua edo hitzarmena sinatzen duen saileko sailburua izango da eskuduna.

4. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak hainbat sailetatik badatoz edo kontratua hainbat entitateren artean sinatu bada, zenbatekorik handiena eman duen edo prestazioetan edo prezioan kargarik handiena hartzen duen saileko sailburua izango da eskuduna.

5. Informazioa emateko betebeharra eginkizun edo ahal publikoen ondorio bada, eginkizun edo ahal horiek gauzatzen diren arloa zein saili dagokion, horko titularra izango da eskuduna.

6. Lege honetan xedatutako betebeharrak benetan gauzatzeko behar duen informazio guztia Administrazioari emateko betebeharra dela eta, erantzulea pertsona fisiko edo juridiko bat bada, orduan informazio hori jaso behar duen saileko sailburua izango da eskuduna.

### **III. TITULUA.– Gobernu-programa eta kontu-emate soziala**

#### **50. artikulua. Gobernu-programa**

1. Gobernu-ekintza denboran proiektatu eta sozializatzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzeko, legegintzaldi bakoitzaren lehen lauhilekoan, Eusko Jaurlaritzak eduki irekiko gobernu-programa bat prestatuko du, eta programan hauek identifikatu:

- a) Lortu nahi diren helburu estrategikoak.
- b) Horretarako behar diren jarduerak eta baliabideak.
- c) Horretarako behar den denboraren zenbatespena.

- d) Programa betetzeko erantzukizuna duten organoak.
  - e) Programaren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetuko duten adierazleak.
2. Aurreikusitako jardueren artean, gobernu-programa osatuko duten lege-proiektuak, plan estrategikoak eta jarduketa garrantzitsuak identifikatu beharko dira.
3. Gobernu-programa Eusko Legebiltzarrerara igorriko da, haren berri izan dezan, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Administrazioak erabiltzen dituen euskarri guztietan argitaratuko da –Gobernu Irekiaren plataforman, bereziki–. Horretarako, herritarrek irispidean izateko modukoak izango diren informazio horren bertsio publikoak egingo dira.

#### **51. artikulua. Kontu-emate soziala**

1. Lege honetan aipatutako publizitate aktiboaren printzipioa aplikatzeko, eta titulu honetan ezartzen denaren arabera egin beharreko ebaluazioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, kontu-emate sozialaren helburua betetzeko, informazioaren berri emango die herritarrei, modu irisgarrian.
2. Horretarako, eta helburu hori betetzeko zehaztu daitezkeen garapenak eragotzi gabe, kontu-emate sozialak barnean hartuko du Eusko Jaurlaritzak Gobernu Irekiaren plataformaren bidez aurreko urteari buruzko alderdi hauei buruzko informazioa zabaltzea, aurreko ekitaldien aldean izandako bilakaerarekin batera:
- a) Emandako zerbitzu publikoen kostu globala eta unitarioa, herritar bakoitzeko.
  - b) Aldi horretan enplegu publikoa osatu zuten giza baliabideak.
  - c) Lortutako gizarte-ongizateko helburu nagusiak.
  - d) Egindako inbertsio publikoak eta haien eraginkortasunaren analisia.
  - e) Herrialdearen egoera azaltzen duten beste magnitude erraz batzuk, zorpetze-maila eta finantza-egoera barne.
  - f) Etorkizunerako hartzen diren konpromiso nagusiak.
  - g) Gizarte-egoera ahulean daudenekiko konpromiso argiak eta eraginkorrak.

### **IV. titulua.– Herritarren parte-hartzea**

#### **I. kapitulua.– Herritarren parte-hartzea**

#### **52. artikulua. Herritarren parte-hartzearen helburua eta artikulazioa**



1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak interesdunek, zenbait interesen ordezkari diren taldeek eta oro har herritarrek gai publikoetan parte har dezaten eta lankidetzan aritu daitezten bultzatuko du. Honela ulertuko da herritarren parte-hartzea: politika publikoak identifikatu, diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko prestatu diren prozedura, kanal eta organo instituzionalen multzoa eta herritarrei aktiboki entzuteko edozein tresna edo bitarteko ere.
2. Lege honetarako, herritarren parte-hartzearen helburua da esku-hartze publikoa behar duten premiak hobeto asetzea eta herritarrek inplikatzeko gai publikoei buruzko erabakiak hartzen.
3. Herritarrek bakarka edo taldeka hartu ahal izango dute parte, eta lege honetan xedatutako tresna eta bideen arabera.
4. Parte hartzeko modu horiek ez dute inolaz ere gutxikatu legez kasuan-kasuan eskudunak diren administrazio-, ordezkari- eta gobernu-organoen erabakitzeko ahalmena.
5. Administrazio-prozedurako interesdunen izaera eragotzi gabe, administrazio-prozedura erkideko legeekin bat etorriz, parte hartzeko izapideen konfigurazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan ekimena sustatzen duen sektore publikoko entitateak alde aurretik eta behin-behineko zehaztu beharko du zein diren entzunaldiaren izapiderako interesduntzat jotzen diren herritarrek eta taldeak; nolahi ere, beste interesdun batzuk egiaztatu ahal izango dira gero.

### **53. artikulua. Gobernu Irekiaren plataforma**

Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 75. artikuluekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta herritarrek etengabe interakzioan aritzeko gune nagusia da Gobernu Irekiaren plataforma; ekintza publikoko partaidetzako eta erantzunkidetzako kudeaketara bideratuta dago, eta hor gauzatzen dira gardentasunaren, parte-hartzearen eta kontu-ematearen printzipioak.

## **II. kapitulua.– Herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa**

### **54. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistro bat sortzen da; publikoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean herritarren partaidetzaren arloko eskumena duen sailari atxikita egongo da.
2. Arauz zehaztuko dira inskripzio-betekizunak, idazpenen edukia, irispidea izateko moduak eta inskribatutako taldeen eta herritarren parte-hartzea justifikatzen duen ekimen bakoitza bultzatzen duten sailekiko koordinazioa.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroan, antolakunde hauek inskribatu ahal izango dira:



a) Entitate kolektiboak: pertsona juridikoak, irabazi-asmorik gabekoak, edozein forma juridiko eta izaera dutenak, interes kolektiboak edo bazkideen interesak –bai orokorrak eta bai sektorialak– defendatzea helburu dutenak, eta jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituztenak.

b) Hausnarketa-taldeak: jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko da zer-nolako informazioa eman behar duten talde horiek beren finantzaketa-iturriei buruz.

5. Erregistroan erregistratzeak berekin dakar interesdun gisa aitortzea eta lege honetan bilduta dagoen parte hartzeko edozein prozesu garaiz eta zehatz-mehatz jakinarazi beharra, horrela lege honetan bildutako eskubideak oso-osorik erabiltzeko. Hala ere, horrek ez du eragingo inskribatuta ez dauden beste talde edo entitate batzuk edo herritarrek baztertzea.

6. Prozesu horietan parte hartzeak ez du ordezkatu entzunaldi publikoaren izapidea, dagokion araudiaren arabera izapide hori nahitaezkoa bada eta, araudi beraren arabera, ordezkari diren taldeak interesdunak baldin badira.

7. Europar Batasuneko Gardentasunaren Erregistroarekin eta parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko foru- eta udal-erregistroekin lankidetzan aritzea sustatuko da, herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek hainbat erregistroan inskribatu beharrik izan ez dezaten, erregistro guztietako informaziorako irispidea modu koordinatuan izateko aukera izan dezaten, eta ahalik eta talde eta herritar gehienak barne hartu eta erregistra daitezten, hartara hobeto beteko baitira barneratzea, parte-hartzea eta gardentasuna lortzeko dituzten helburuak. Halaber, beste erregistro batzuekiko lankidetzaz ere sustatuko da, eta beste horrenbeste egingo da Estatuan zein nazioartean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta zenbait interesen ordezkari diren taldeen jarduera kontrolatzeko sor daitezkeen antzeko organoekin ere, jardunbide egokiak trukatzeko eta helburuak hobeto betetzen laguntzeko xedez.

## **55. artikulua. Parte-hartzea sustatzeko neurriak**

1. Herritarren asoziazionismoa, parte-hartzea eta garapen komunitarioko lankidetzaz-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak sustatu eta egingo ditu, genero-ikuspuntua txertatuta, eta bere zerbitzura diharduten langileei zein herritarrei zuzenduko zaizkie, parte hartzeko prozeduren berri jakin eta erabil ditzaten.

2. Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak hainbat tresna erabiltzea sustatuko du; besteak beste, inkestak, iritzi-eskeak, kontsulta-foroak, eztabaidaguneak eta kontsultaguneak, lotesleak ez diren kontsulta orokor edo sektorialak, kontsulta irekiak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak, partaidetzazko deliberazio-prozesuak eta egoki izan daitezkeen gainerako tresna guztiak.

Horiek guztiek aurrez aurreko edo komunikazioaren teknologia egokien bidezko parte-hartzea bermatu beharko dute, Interneten dagoeneko badiren teknologiez eta bestelako batzuez gain, hala nola telekomunikazio mugikorren gailuetarako garatutakoak.



## 56. artikulua. Parte hartzeko prozedura eta tresnen berme eta eskubide komunak

1. Parte-hartzea benetakoa izan dadin, pertsona eta talde parte-hartzaileek berme hauek izan beharko dituzte:

a) Aukera izatea garaiz jakiteko interesatzen zaizkien prozeduretatik zein izapidetu daitezkeen, eta zer bide gaitu den prozedura horietan parte hartzeko.

b) Jakitea zer helburu lortu nahi den parte hartzeko prozesuaren bidez, nola parte hartu prozesu horretan, eta zer eskubide eta berme dituzten.

c) Eskubideak gauzatzeko garrantzitsua den informaziorako irispidea garaiz izatea; informazio hori jasotzea, lege honek informazio publikoaren gardentasun- eta kalitate-estandarrei buruz xedatutakoak beteta –batik bat, informazioa ulergarria eta eskuragarria izan dadila–, eta bitarteko propioen bidez alderatzeko aukera izatea.

d) Kasuan-kasuan parte-hartzaileen edo adituen artean sortzen den iritzi-truke, eztabaida edo deliberazioetan parte hartzea, lankidetz bitarteko bakoitzerako ezarritako moduen eta bermeen arabera.

e) Plan, programa, proiektu edo xedapen orokorren gaineko alegazioak, oharrak eta proposamenak egitea, aukerak oraindik irekita daudenean eta haien gaineko erabakia hartu aurretik.

f) Administrazioak konfidentzialtasuna bermatzea pertsona fisiko parte-hartzailearen identitatearen gainean, hala eskatzen bada eta posible bada parte hartzeko erabiltzen den tresnaren arabera.

g) Jakitea zer taldek eta, gutxienez labur-labur, zer pertsonak parte hartu duten parte hartzeko prozesuan, eta zein diren haien ekarpen nagusiak. Parte hartzeko tresnaren arabera, bide emango da parte hartzen duten beste talde edo pertsona batzuekin ados jartzeko, eztabaidan edo debatean aplikatu beharreko arauen arabera.

2. Halaber, parte-hartzea benetakoa izan dadin, pertsona eta talde parte-hartzaileek eskubide hauek izan beharko dituzte:

a) Zerbitzu publikoen kalitatearen eta politika publikoen ebaluazioan parte hartzea; horretarako, interesdunen, zenbait interesen ordezkari diren taldeen eta oro har herritarren parte-hartzea sustatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek, eta aldi-aldi galdetuko diete zer gogobetetze-maila duten ematen zaizkien zerbitzu publikoei dagokienez eta aurre-ebaluazioaren jarraipen- edo emaitza-ebaluazioei dagokienez.

b) Xedapen orokorrak prestatzen, gobernu-plangintzan eta Eusko Jaurlaritzaren jarduketa esanguratsuetan parte hartzea; horretarako, Administrazio orokorrak aurretiazko kontsulta publikoko aldi bat zabalduko du, prestatzeko eta diseinatzeko prozesuan.

c) Beren eskubide eta interes legitimoei, kolektiboei, eta bazkideen edo ordezkatzten dituzten pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten gaiak buruzko erregelamenduen ekimenak sustatzea, kanpoan utzita bai legeei erreserbatutako gaiak bai legegintzako herri-



ekimenetik kanpo geratzen diren gaiak. Bete beharreko prozedura behar den araudian ezarriko da, honako hauek ere araututa: sustatzaileak, beharrezko dokumentazioa duen hasiera, horren onarpena, sinaduren bilketa, izapideak eta, hala badagokio, azken onarpena.

Herritarren ekimena onartzen ez bada ez direlako betetzen hura erregulatzen duen araudiak xedatutako baldintza guztiak, sinatzaileek eskatuta, ekimen hori Administrazioarentzako eskabide bilakatu ahal izango da, araudi erregulatzeak ezarritako baldintzetan, baldin eta horretarako baldintzak betetzen baditu. Horixe bera aplikatuko da ekimena onartu bai baina gutxienerako sinadurak biltzen ez dituenean ere.

### **57. artikulua. Herritarren parte-hartzetik eta lankidetzatik kanpoko gaiak**

Kapitulu honetan araututako herritarren parte-hartzea eta lankidetzak ezin izango da planteatu honelako gai hauetan: ordenamendu juridikoaren aurkakoak badira, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak ez badira; pertsonen duintasuna eta indarrean den ordenamendu juridikoak aitortutako oinarriko eskubideak eta askatasun publikoak zalantzan jartzen badituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde-antolaketari edo haren ogasun publikoaren baliabideei buruzkoak badira.

### **58. artikulua. Parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko txostena**

1. Herritarrek parte hartzeko eskumena duen sailak urteko txostena egingo du lege hau betetzeko garatu diren herritarren parte-hartzerako bitartekoei buruz eta bitarteko horiek erabiltzeko praktikari buruz, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten enteek bitarteko horiek praktikan nola erabili dituzten erakusteko.

2. Txostenean, herritarren parte-hartze maila, erabilitako bitartekoak eta emaitzak ebaluatzeko informazio garrantzitsu guztia jasoko dira, genero-ikuspegia barnean hartuta, eta, horretaz gain, kontuan hartuko dira herritarrek parte hartzeko bitartekoak hobetzeko prozesuak ezartzeko behar diren neurri guztiak.

3. Txosten hori lege honetan xedatutako Gobernu Irekiaren plataforman argitaratu, eta Eusko Legebiltzarrari igorriko zaio, jakinaren gainean egon dadin eta kontuan har dezan egoki iruditzen zaizkion ondorioetarako.

## **III. kapitulua.– Interes-taldearen erregistroa**

### **59. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko interes-taldearen erregistroa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko interes-taldearen erregistroa sortzen da; horren bidez, identifikazio publikoa erraztuko da eta interes-taldeek autonomia-erkidegoko sektore publikoan egiten duten jardueraren gardentasuna eta kontrola bermatuko dira.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko interes-taldeen erregistroa izaera administratiboko erregistro elektronikoa publiko eta doako bat izango da.
3. Erregistroko informazioa irisgarria, ulergarria, formatu irekikoa eta berrerabilgarria izango da, eta Administrazio autonomikoaren gardentasun-atarien bidez egongo da eskuragarri.
4. Erregistroko datuen eta informazioaren publizitateari gardentasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatuko zaio.

## **60. artikulua. Interes-taldeak**

1. Lege honetarako, interes-taldetzat hartzen dira, beren forma edo estatutu juridikoa edozein dela ere, beste pertsona edo erakunde batzuen intereserako jarduten duten pertsonak eta erakundeak; hain zuzen ere, haien jarduerak zuzenean edo zeharka eragina izan dezakete politika publikoak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan, aplikazioan edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio eta entitateen erabakietan.
2. Horretarako, berdin hartuko dira plataformak, sareak edo jarduera kolektiboetarako bestelako formak, baldin eta de facto eragin-iturri antolatuak badira eta erregistroaren aplikazio-eremuaren barruko jarduerak egiten badituzte, nortasun juridikorik izan ez arren.
3. Erregistroaren aplikazio-eremuan sartuko dira artikulua honen 1. apartatuan adierazitako prozesuei zuzenean edo zeharka eragiteko egiten diren jarduera guztiak, erabilitako kanala edo bitartekoa edozein dela ere; barnean sartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazioen eta entitateen zerbitzupeko langileekiko eta funtzionarioekiko, eta agintariekiko eta kargu publikoekiko harremanak ere, bai eta legegintzako proposamenei, araudiei, egintza juridikoei edo bestelako kontsultei buruzko kontsulta ofizialetan borondatez egindako ekarpenak eta parte-hartzeak ere.
4. Ez dira interes-taldetzat hartuko entitate hauek:
  - a) Gobernuarteko antolakundeak eta haiei lotutako edo haien mendeko agentziak eta antolakundeak.
  - b) Zuzenbide publikoko korporazioak, eginkizun publikoetan jardunez gero, hargatik eragotzi gabe interes-taldetzat hartu ahal izatea beste eginkizun batzuk egiten badituzte.
  - c) Alderdi politikoak, konstituzio-eginkizunetan jardunez gero, hargatik eragotzi gabe interes-taldetzat hartu ahal izatea haiek sortu edo finantzatutako entitateak.
  - d) Sindikatu- eta enpresa-antolakundeak, konstituzio-eginkizunetan jardunez gero, hargatik eragotzi gabe interes-taldetzat hartu ahal izatea haiek sortu edo finantzatutako entitateak.
  - e) Dimentsioagatik zein garrantziagatik esanguratsuak diren interes ekonomiko indibidualak ez dituzten gaietan jarduten duten pertsona fisikoak.

## **61. artikulua. Erregistrotik kanpoko jarduerak eta entitateak**

1. Interes-taldeen erregistrotik kanpo daude jarduera hauek: administrazio-prozeduren eraginpeko interesen babesari zuzenean lotutako aholkularitza juridikoa edo profesionala ematekoak; bezeroei egoera juridiko orokor bati buruzko informazioa ematera zuzendutakoak; legearen esparruan egindako adiskidetze- edo bitartekaritza-jarduerak, edo ordenamendu juridikoak ezarritako eskubideak edo ekimenak baliatzeko informazio-helburuekin egindako aholkularitza-jarduerak.

2. Lege honetarako, ez dira eragin-jardueratzat hartuko, eta, beraz, haren erregistrotik kanpo geratuko dira honako hauek: erakunde pribatuek funtzio publikoak betetzeko edo zerbitzu publikoak emateko egiten dituzten jarduerak, baldin eta eginkizun horiek lege baten arabera eskuordetu bazaizkie; lege- edo erregelamendu-arauetan xedatutako parte-hartze publikoko prozesuetako esku-hartzea, eta protokolo hutseko bilera eta ekintzetan parte hartzea.

## **62. artikulua. Inskripzioa**

1. Interes-talde guztiek interes-taldeen erregistroko inskripzioa egin behar dute.

2. Inskribatu egingo dira, halaber, politika publikoak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan, haien aplikazioan edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio eta entitateen erabakietan zuzenean edo zeharka eragina duten jarduera guztiak, barnean hartuta agintariekiko eta kargu publikoekiko, funtzionarioekiko eta sektore publikoko administrazio eta entitateetako langileekiko harremanak ere.

3. Aldez aurretik egin behar da inskripzioa, eta inskripzio gabe ezin izango da aurreko apartatuan adierazitako bilerarik, harremanik edo topaketarik egin.

## **63. artikulua. Erregistroaren edukia**

1. Interes-taldeen erregistroak honako hauek izan behar ditu:

a) Politika publikoen prestakuntzari eta aplikazioari eragiteko jarduten duten pertsonen eta antolakundeen zerrenda, kategorien arabera ordenatua, eta horien egoitza zein den.

b) Inskribatutako pertsonen eta antolakundeek eman behar duten informazioa, egiten dituzten jarduerari, interes-eremuari eta finantzaketari buruzkoa, bereziki.

c) Jokabide-kode komun bat.

d) Kontrol- eta fiskalizazio-sistema; horrek aplikatu beharreko salaketa-mekanismoak ezarri behar ditu lege honetan edo c letran aipatzen den jokabide-kodean ezarritakoa betetzen ez denerako.

2. Erregistroak interes-taldeen jarduketan zabalkundea egin behar du, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazioen eta entitateen zerbitzupeko langileekin, funtzionarioekin, agintariekin eta kargu publikoekin egindako bilera eta entzunaldiena, bai eta landutako gaiei buruzko komunikazio, txosten eta bestelako ekarpenena ere.

#### **64. artikulua. Deklaratzaileen betebeharrak**

1. Interes-taldeak erregistroan inskribatzeak betebeharrak hauek dakartza:

- a) Emandako informazioa publiko egitea onartzea.
- b) Emandako informazioa osoa, zuzena eta fidagarria dela bermatzea.
- c) Jokabide-kodea betetzea.
- d) Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez onartzea kontrol- eta fiskalizazio-araubidea eta dagozkion neurriak aplika daitezela, lege honetan ezarritakoa edo jokabide-kodea edo betetzen ez bada.

2. Deklaratzaileek erakundeei hauen berri eman behar diete: zer jardura egiten dituzten; zer bezero, pertsona edo antolakunderentzat lan egiten duten eta, hala badagokio, zer kopuru ekonomiko jasotzen dituzten, eta zer-nolako gastuak dauzkaten interes-talde gisa jarduten dutenean.

#### **65. artikulua. Jokabide-kodearen gutxieneko edukia**

Aurreko artikuluan adierazitako jokabide-kodeak hauek behintzat hartu behar ditu barnean:

- a) Izenpetzen duen deklaratuaren izena eta datuak.
- b) Deklaratzaileak zer entitate edo antolakunde ordezkatzen duen edo non egiten duen lan, eta zer-nolako interesak, helburuak edo xedeak dauzkaten haren bezeroek.
- c) Deklaratuaren konpromisoa modu desonest batean ez jokatzeko, ez informazioa lortzeko edo lortzen saiatzeko orduan, ez erabakietan eragina izaten saiatzeko.
- d) Deklaratuaren konpromisoa informazio eguneratua eta engainazina emateko, erregistroan inskribatzeko orduan, eta, ondoren, eguneratuta mantentzeko.
- e) Agintariak, kargu publikoak edo funtzionarioak, inola ere, jokabide-kodean ezarritako jokabide-arauak edo legeak haustera ez bultzatzeko konpromisoa.
- f) Lege honetan edo jokabide-kodean ezarritako betebeharrak betetzen ez direnerako ezarritako neurriak onartu eta betetzeko konpromisoa.

#### **66. artikulua. Kontrola eta egiaztapena**

1. Inskribatutako interes-taldearen informazioa ofizios edo hirugarrenek eskatuta kontrolatu eta egiaztatu ahal izango da.

2. Aldian-aldean, erregistroaren organo arduradunak ausazko kontrolak egingo ditu, erantzuleek deklaratuaren datuak egiazkoak direla egiaztatuz. Ez-betetzereen bat atzematen badu, deklaratuari errekerimendua egin beharko dio, hamabost eguneko epean zuzen dezan, eta



adieraziko dio ezen, errekerimenduari erantzun ezean, inskripzioa eteteko edo, hala badagokio, ezerezteko prozedura hasi ahal izango dela. Epe horretan bertan, deklaratzailerak egoki iritzitako alegazioak egin edo dokumentuak eman ahal izango ditu, baldin eta uste badu ez dituela datuak zuzendu behar.

3. Edozein pertsona dago legitimatuta egitate materialetan oinarritutako salaketak aurkezteko, baldin eta susmatzen badu titulu honetan adierazitako pertsonen edo antolakundeek ez dituztela betetzen legeak edo jokabide-kodeak ezarritako betebeharrak.

4. Erregistroaren arduradunek egin behar dute salaketak izapidetu eta ikertzeko prozedura, eta eraginpekoarentzako entzunaldia bermatu behar dute.

#### **67. artikulua. Betetzen ez denean aplikatu behar diren neurriak**

Inskripzioa eten edo ezerezteko kausa izango dira honako hauek: erantzukizunpeko adierazpena edo jokabide- eta jardun-arauak ez betetzea; datu faltsuak ematea; ez laguntzea edo eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea erregistroan inskribatzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

#### **68. artikulua. Erregistroaren atxikipen organikoa eta arauko erregulazioa**

1. Interes-taldeen erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean herritarren partaidetzaren arloko eskumena duen sailari atxikita geratuko da.

2. Erregelamendu bidez, honako hauek ezarriko dira: inskripzio-prozedura, bertan inskribatu behar diren pertsonen eta antolakundeen sailkapena, deklaratzailerak eskatutako informazioa, jokabide-kodearen eduki xehatua, eta salaketak ikertu eta izapidetzeko prozedura.

### **V. TITULUA.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza**

#### **69. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sorrera**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza entitate publikoa sortzen da; nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa ematen zaio, eta independentzia osoz jardungo du administrazio publikoen eginkizunetan eta enpresa- edo merkataritza-interesetan, objektibotasunez, independentziaz, inpartzialtasunez, profesionaltasunez eta ordenamendu juridikoaren mende.





2.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak Eusko Jaurlaritzarekiko harremanak izango ditu lehendakariak gobernu-egituraren dekretuan zehaztutako sailaren bidez.

#### **70. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren izaera**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza informatzaileak babesteko administrazio-agintaritza independente gisa sortzen da Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera, eta jardun-eremu funtzionala hedatzen du euskal sektore publikoko administrazio, organismo eta entitate guztietara eta entitate pribatuetara, lege honen 9. artikulua arabera.

2. Halaber, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak bere gain hartzen du agintaritza publikoaren izaera, bai euskal herritarrek informazio publikorako irispidea izateko eskubidea berma dadin, bai lege honen 8. artikuluan ezarritako aplikazio-esparruan gardentasunari eta osotasunari buruzko arau-eskakizunak bete daitezzen.

#### **71. artikulua. Araubide juridikoa**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak honako hauetan xedatutakoa beteko du: lege hau, bere estatutua, eta Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legean adierazitako jardun-xedapen orokorrak.

2. Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartuko du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutua, eta horren bidez egitura, antolamendua eta funtzionamendua garatuko dira; lege hau garatzeko behar diren bestelako edozein erregelamendu-xedapen ere onartuko du.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako langileek eta organoetako kideek, dagozkien eginkizunetan jarduteko, ezin izango dute inola ere eskatu edo onartu ezein entitate publiko edo pribaturen jarraibiderik.

#### **72. artikulua. Ekonomia- eta aurrekontu-araubidea**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak urtean behin prestatu eta onartuko du aurrekontu-aurreproiektua, eta Eusko Jaurlaritzara bidaliko du, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan behar bezalako independentziarekin sar dadin, Euskadiko aurrekontu-erregimena arautzen duten legeekin bat etorritz. Halaber, legedi horren mendean egongo da, aurrekontua aldatu, gauzatu eta likidatzeko araubideari dagokionez, eta, ondorio horietarako, izaera juridikoa hartuko da kontuan.

2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak honako hauek izango ditu bere helburuak betetzeko:



- a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ezartzen diren diru-esleipenak.
- b) Bere aldeko dirulaguntzak eta ekarpenak.
- c) Ondarean dauzkan ondasun eta baloreak eta horietatiko produktu eta errentak.
- d) Jardunetik sortzen zaizkion ohiko zein ezohiko diru-sarrerak.
- e) Legez ematen zaizkion gainerakoak.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak ekitaldiaren amaierako diru-sarreraren emaitza positiboa bere erreserbetara bideratuko du, guztizko independentzia bermatzeko xedez.

4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak kontabilitate publikoko araubidea bete behar du, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kontrol ekonomikoaren arloko eskumena daukan sailaren kontrol ekonomiko eta finantzarioaren eta kudeaketa-kontrolaren mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazioaren mende egongo da.

### **73. artikulua. Langileen araubidea**

- 1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren zerbitzuko langileak funtzionarioak izango dira, eta euskal funtzio publikoa arautzen duten legeen arabera gidatuko dira.
- 2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren lanpostu-zerrenda ebazpen bidez onartuko du hango presidenteak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.
- 3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari dagokio hauek zehaztea: lanpostuetara iristeko araubidea, hautaprobeen ezaugarriak eta betekizunak, eta lanpostuak hornitzeko eta sustapen profesionaleko prozeduretarako deialdia, kudeaketa eta ebazpena.
- 4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako langileak behartuta daude sekretua gordetzera eginkizun-jardunaren ondorioz dakizkiten informazioen gainean, baita eginkizun horiek utzi ondoren ere.

### **74. artikulua. Kontratazio-araubidea**

- 1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak egiten dituen kontratuetan, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeetan xedatutakoa beteko da.
- 2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentea kontratazio-organotzat hartuko da, hargatik eragotzi gabe eginkizunak eskuordetu ahal izatea estatutuan xedatuta daukanaren arabera.

### **75. artikulua. Laguntza juridikoaren araubidea**



Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren epaitegietako ordezkari eta defentsa Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren ardura izango dira, arau erregulatuarekin bat etorritik.

#### **76. artikulua. Errekurtsoen araubidea**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentearen egintzek eta ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute; horrenbestez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan soilik errekurritu ahal izango dira, hargatik eragotzi gabe aukerako berraztertzeko errekurtsoa eta kanpoko informazio-kanalaren bidezko komunikazioan jarduketak amaitzeari buruzko xedapen espezifikoak, betiere Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 20.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren organoen egintzek eta erabakiek, presidentearenak ez badira, ez dute administrazio-bidea amaitzen; horrenbestez, administrazio-errekurtsoa jarri ahal izango zaie, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Gardena-Gardentasunaren estatutuan xedatutakoaren arabera.

#### **77. artikulua. Zirkularrak eta gomendioak**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentearak zirkularrak eta gomendioak egin ahal izango ditu, zuzen funtzionatzeko irizpide eta jardunbide egokiak ezartzeko.

2. Zirkularrak onartzeko, Xedapen Orokorren Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa beteko da, eta nahitaez bete beharrekoak izango dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

#### **78. artikulua. Zehatzeko ahala.**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak zehatzeko ahala egikaritu du, baldin eta Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legean adierazitako arau-hausteren bat egiten bada bai euskal sektore publikoaren eremuan bai eremu pribatuan, arau-haustearen eragina Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremura soilik mugatzen bada.

#### **79. artikulua. Antolamendu-egitura**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren antolamendu-egitura estatutuan ezarriko da; hain zuzen, presidentetza bat eta haren mendeko bi dibisio izango ditu. Dibisio horiek berariazko jarduna izango dute. Hain zuzen ere, batak kanpoko informazio-kanalaren bidezko komunikazioak izapidetzeko eta ustelkeriaren aurkako borroka esparruan arau-hausteen



informatzaileak babesteko eginkizunak izango ditu; besteak, berriz, administrazio publikoen gardentasunari loturiko eginkizunak izango ditu.

2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren administrazio-unitateak eta barne-funtzionamendua antolatzeko araubideak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuan xedatutakoa bete beharko du.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren barruan, datuak babesteko ordezkari bat izendatuko da, artikulua hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 37.1.a) artikulua –2016/679 Erregelamendua (EB), 2026ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra)–, eta Arau-hausteen informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 34. artikulua.

#### **80. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako Presidentetza**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ordezkari-tza- eta gobernu-organo gorena presidentea da.

2. Presidentea gobernu-dekretuz izendatuko da bost urterako, eta epe hori behin baino ezin izango da luzatu; baina, izendapenerako, gardentasunaren arloko sailburu eskudunak pertsona bat proposatuko du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren eskumeneko gaietan ospe handia eta gaitasun profesionala duten eta eginkizunak betetzeko gaitasuna duten pertsonen artetik.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentea goi-karguduntzat hartuko da, sailburuordearen karguarekin parekatuta. Edonola ere, Kargu publikoen jokabide-kodea eta interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea eta bera garatzeko arauak aplikatuko dira.

4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteak arrazoi hauetako batengatik baino ezin izango du kargua utzi agintaldia amaitu aurretik:

- a) Norberak eskaturik.
- b) Dolozko delitu baten ondoriozko kondena izateagatik.
- c) Betebeharren ez-betetze larria izateagatik.
- d) Eginkizuna galarazten dion ezusteko ezintasuna izateagatik.
- e) Bateriaezintasuna izateagatik.

#### **81. artikulua. Presidentearen eginkizunak**



Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteari honako eginkizun hauetan jardutea dagokio:

- a) Entitatearen legezko ordezkaria izatea eta haren funtzionamendua zuzentzea.
- b) Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzea, langile guztien buru gorena izatea, eta lanpostuen zerranda onartzea.
- c) Urteko aurrekontuaren aurreproiektua egitea, gastuak xedatzea eta ordainketak agintzea, eta kontratuak eta hitzarmenak egitea.
- d) Informatzaileak babesteko agintaritza independentea den aldetik, kanpoko komunikazio-kanala kudeatzea, lege honen 9. artikuluan xedatutako esparruan.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko euskal sektore publikoan eta pribatuan egiten diren arau-hausteen berri ematen duten informatzaileak babesteko diren eta ordenamendu juridikoan dauden neurriak hartzea, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera.
- f) Zehapen-prozedurak ebaztea otsailaren 20ko 2/2023 Legean adierazitako zehapen-araubidearen esparruan (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea).
- g) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu aurretik, informazio publikorako irispidearen arloko ebazpenen aurkako aukerako erreklamazioak ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio eta entitateei, toki-administrazioei eta haien mendeko organismoei dagokienez –Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 65.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz–, eta Lan Harremanen Kontseiluari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Euskal Herriko Unibertsitateari dagokienez.
- h) Betebeharra ezarrita daukaten subjektuek lege honetako publizitate aktiboaren betebeharrak bete ditzaten zaintzea.
- i) Diziplina- eta zehapen-espedienteak hasteko eskatzea, lege honetako xedapenekin bat etorriz.
- j) Lege honek, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuak eta indarreko ordenamendu juridikoak ematen dizkieten gainerako eginkizunak egikaritzea, batez ere Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak emandakoak.
- k) Lege- edo erregelamendu-mailako bestelako xedapenek ematen dizkieten edo helburuak eraginkortasunez betetzeko ezinbestekoak diren gainerako eginkizunak.

## **82. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emailea**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteak kontseilu aholku-emaile baten aholkularitza izango du, bera izango da burua, eta kide hauek izango dira:

- a) Eusko Legebiltzarrak izendatutako bere ordezkari bat.

- b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak izendatutako bere kide bat.
  - c) Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren arduraduna.
  - d) Lurralde historikoetako foru-aldundi bakoitzaren ordezkari bat.
  - e) Euskadiko toki-entitateen ordezkari bat, EUDELeK izendatua.
  - f) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzendaria.
  - g) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen ordezkari bat, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak izendatua.
  - h) Zigor-zuzenbidearen eta informazioaren zuzenbidearen eremu akademikoetako bi aditu, Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuak.
  - i) Jarduneko legelari bat, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardun-gaietan esperientzia egiaztatua duena eta Legelarien Euskal Kontseiluak izendatua.
2. Kontseilu Aholku-emailearen osieran, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua izaten saiatuko da. Horretarako, bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkari-tza dutenean joko da ordezkari-tza orekatutzat.
  3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek erabakiko du Kontseilu Aholku-emailea noiz bilduko den; baina sei hilean behin bildu beharko da, gutxienez.
  4. Kontseilu Aholku-emaileak hartzen dituen erabakiak ez dira inola ere lotesleak izango, txostenen forma izango dute, eta Presidentetzak aurkezten dizkion aztergaiei buruzkoak izan daitezke; halaber, dagokion jardun-eremuko gaiei buruzko proposamenak ere egin ahal izango ditu.
  5. Lege honetan xedatu ez den guztiari dagokionez, Kontseilu Aholku-emailearen araubidea, antolamendua eta funtzionamendua Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuak arautuko ditu.

### **83. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren urteko memoria**

- 1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek jardunaren urteko memoria egingo du, eta han, betebeharra duten entitateen betetze-maila identifikatu ahal izateko moduan, erreferentzia hauek behintzat adieraziko ditu: zer komunikazio egin diren kanpoko informazio-kanalaren bidez, eta zer babes-neurri hartu diren; gardentasunaren arloan izapidetutako aukerako erreklamazioen, bitartekaritza-jarduketan eta kontsulten zerrenda, eta Gardenak zabaltzeko egoki irizitako gomendioak eta errekerimenduak.
2. Urtero, urteko lehen hiruhilekoan, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaie memoria, eta argitaratu ere egingo da Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren gardentasun-atarian.

### **84. artikulua. Kontrol parlamentarioa**

Urtean behin, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentea Eusko Legebiltzarreko batzorde eskudunaren aurrean agertuko da.

#### **85. artikulua. Gardentasuna**

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak webgune propio bat izango du, eta lege honetan ezarri diren publizitate aktiboaren betebeharretatik eratorritako informazioa argitaratuko du. Horretaz gain, gardentasun-atari horretan bere ebazpenak, txostenak, interpretazio-irizpideak, erabakiak eta jardunaren urteko memoria argitaratuko ditu, arauetan ezarritako mugen eraginpeko informazioa disoziatu ondoren. Betebeharra duten subjektuek bete dituzten, bete ez dituzten eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu dituzten ebazpenei buruzko informazioa ere argitaratuko da, bai eta herritarrei interesa dakiekeen beste edozein informazio ere.

2. Kanpoko informazio-kanal gisa dituen eginkizunetan, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak argitara eman beharko du bere egoitza elektronikoaren atal bereizi, erraz identifikatzeko moduko eta irisgarri batean otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 25. artikuluan xedatutako informazioa behintzat (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea).

#### **Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen jarduna ordezkatzea**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, bere estatutuan ezarritakoaren arabera jarduten hasten denean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea ordezkatuko du informazio publikorako irispidearen arloko aurkaratze-araubideari lotutako eginkizunetan, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuan adierazitako moduan.

#### **Bigarren xedapen gehigarria. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziako langileen araubide juridikoa**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidente izendatutako pertsona, funtzionario publikoa bada, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu da aipatutako administrazio independenteko burua den aldirako, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren egituraren erantzukizun bereziko lanpostuak betetzeko izendatutako pertsonak, haren estatutuan horrela kalifikatuak, funtzionario publiko badira, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu dira destino horretan dauden aldirako, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.



### **Hirugarren xedapen gehigarria. Arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko informaziorako barne-sistemaren arduradunaren araubide juridikoa**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren arabera arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko informaziorako barne-sistemaren arduradun izendatutako pertsona, funtzionario publikoa bada, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

### **Laugarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako kide anitzeko organoaren sorrera**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza jardunean hasitakoan, eta gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako den eta lege honen 43. artikuluan adierazita dagoen kide anitzeko organoa sortu aurretik, gobernuak berak egokituko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden kide anitzeko gainerako organoak, aipatutako xedapeneko atazak funtzionalki bateratzeko.

### **Lehenengo xedapen iragankorra. Ebazteke dauden prozedurak**

Publizitate aktiboaren eta informazio publikoa irispidean izateko eskubidearen arloko prozeduraren bat, lege hau indarrean jarri aurretik hasi bazen, hasteko unean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetuko da, amaitu arte.

### **Bigarren xedapen iragankorra. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutua onartzea**

Gobernuak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutua onartuko du lege hau indarrean jarri eta bi hilabeteko epean.

### **Azken xedapenetako lehenengoa. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren hasiera**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutua onartzen duen dekretuak adieraziko du noiz hasiko den jardunean.

### **Azken xedapenetako bigarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatzea**

Zazpigarren xedapen gehigarri bat eransten zaio Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeari, honela idatzita:





***Zazpigarren xedapen gehigarria. Lehiaren arloko arau-hauste posibleak komunikatzeko kanpoko kanalaren sorrera***

*Lehiaren Euskal Agintaritzaren kanpoko komunikazio-kanala sortzen da, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2017 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.*

**Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

IZO - ZIURTAGIRIA